

**K**... eta!  
**Kitto!**

2019-VII-19

1109 zkia.

# Zurrunbiloan murgilduta



T. Etxebarria, 1  
943 20 42 99

**Etxeko aseguruak** estimatzen duguna babesten du. Altzariak, elektrodomestikoak, arropa, balio handiko gauzak... **Sartu eta azalduko dizugu!**

Informazio gehiago: [eukiseguros.com](http://eukiseguros.com)

**ETXE**  
**ASEGURUA**

**EUKI**  
ASEGURUAK

Euki-n zure etxearen neurriko babes onena eskaintzen dizugu

# gremioen gida



943-206776



## ANTENAK

**BALATZ**

Instalakuntzak eta konponketak antenak

Bidebarrieta, 37  
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08  
Faxa. 943 20 04 94

## ELEKTRIZITATEA

**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac  
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62  
630 95 73 45  
943 20 06 97

## IGELTSEROAK

Eraikuntza  
Erreformatz  
Igeltseritza  
**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobez  
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
[www.irazabal.net](http://www.irazabal.net)

Ego Gain, 2 - Bac  
Tfnoa. 943 12 73 50  
[www.trinmer.com](http://www.trinmer.com)



TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

**THELECEER**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
24 orduko  
urgentziak  
610 532 922

## ARKITEKTOAK

olatz etxeberría martínez ARKITEKTOA  
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberría

arkitektura, hirigintza eta peritazioak  
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoa

Mekola, 7 - behea  
Tel/Fax 943 70 21 12 [www.arquitectura-ei.com](http://www.arquitectura-ei.com)



## ERAIKINEN MANTENUA

**I.T.E.** INSPECCION  
TECNICA DE  
EDIFICIOS  
**E.I.T.**  
ERAIKINEN  
IKUSKAPEN  
TEKNIKOA  
info@ajtoficina.com tlf. 943 20 12 50  
**AJT Zihurtasuna S.L.P.**  
Barrena, 6 - behea ezk.

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**  
TAILERRA: ERREKATXU, 3an  
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK  
info@cristeriaacha.com ERAKUSKETA  
eta faxa: 943 203 903 Arikitzaneko Zubian

## AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia  
baita toloak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 [www.ulmar.net](http://www.ulmar.net)

ERAKUSKETA  
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS  
ARRILLAGA**  
PROIEKTUAK - ERREFORMAK  
GREMIOEN KOORDINAZIOA  
ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-  
605 713 168 943 744 019

## GARBIKETAK

**Limpieza  
Multiservicio  
Eibar**  
Superficie  
mota guztietako  
garbiketa eta  
mantenimendu zerbitzua  
Tfnoa. 943 031 082  
Mobila 688 609 171  
[www.multiservicioeibar.com](http://www.multiservicioeibar.com) Arragueta, 18-2.D

## PINTURAK

**baglietto**  
PINTOREAK  
Zoru mota guztiak  
Pinturak  
Dekorazioa  
Errebal, 21 [www.bagliettoeibar.com](http://www.bagliettoeibar.com)  
Tel: 943 201 922 [bagliettoeibar@kaixo.com](mailto:bagliettoeibar@kaixo.com)

[www.kolorlan.com](http://www.kolorlan.com) 667 54 89 16



**MALVAR**  
PINTURAS  
Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396



Euskara Elkarte

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkarte.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18 /  
603 598 285.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzio@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
J.L. Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**  
Malen Jainaga  
eta Malen Illarramendi

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

**TELEFONOAK:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Ekhi Belar

**BANAKETA-ARDURA:**  
Mohammed El Ghabali

**TIRADA:** 8.150 ale

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta inntzien erantzunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZTA)

# eskutitzak

## – Eibarren guztia Untzagan egin behar da derrigorrez? –

Ez da Eibarren egiten diren ekitaldiak herri guztian banatzeko eskaera egiten dugun lehenengo aldia. Alkatearekin ere bildu izan gara, baina kasu zitzirik ez digute egin. Badirudi ohitura bihurtu dela, edozein ekitaldi egiten dela ere, Untzaga izatea haren kokagunea. Besteok zergarik ordainduko ez bagenu moduan! Sanjuanak izan, Sanandresak... berdin dio... Urkizun ez dugu kontzerturik izango. Udalgintarietien egindako bileretan, gainera, funts han-

dirik gabeko aitzakiak erabili izan dituzte. Zelan ulertu, bestela, "Urkizun ez dagoela tokirik" entzun behar iztea? Benetan? Dias das Letras-eko urteroko egitarauan kamioi erraldoiak izaten ditugunean bisitari, maila handiko eszenategiekin? Ez da espazio kontua, gogo kontua baizik. Ez dugu uste jasotzen dugun tratua merezi dugunik. Udalgintarietiek errazenera jotzen dutela uste dugulako.

Urkizu inguruko hainbat tabernari eta bezero

Esku artean duzuen alea ikasturteko azkena da. Hurrengokoa Arrateak aurretik, **irailaren 6an**, barixakuan, kaleratuko dugu.

Ordura arte, ondo izan.

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MITXELETA BALTZ.** - Tximeleta mota bat. Suerte txarrekoa ei da. "Illunabarreko mitxeleta baltzak bildur emoten zetsen".

**MITXELETA ZURI.** - Mitxeleta mota bat. Ortuetan kalte gandia egiten du. "Mitxeleta zurixak lagatzen daben harra aza sailletan, hondamendi haundixa".

**MITXELETA-GEI.** - Larba, tximeleta bihurtuko den harra. "Mitxeleta eder agertu baiño lehen, mitxeleta-geixa izan zan".

## astean esanak

"Goierriin hauxe albiste: *Shopping night* egingo zela eta sorpresak (gehiago) izango zirela, *Food Truck*-ak eta parkean *Chill out*-a... Herriko dendari elkarteak antolatzen zuen, denda txikien biziraupena ziurtatzea helburu... Eremu komertzial erraldoien erasoari aurre egiteko, antza. Herriko jendea joango da denda horietara, ezta? Gazte zein gazte izanak? Gazteek ulertuko dute; ez dira alferrik ari haurtzarotik ingelesa ikasten! Adintsuagoek eta bizitza egoera jakin batetik kanpo direnek? Kale! Komunikazio horren helburua, denda handien

kompetentziari aurre egitea ote? Haien estrategia berarekin, ingelesa nagusi? Ala, bezero mota jakin bat erakarri? Eta aldendu? Gurea zaintzeko, marka gisa jartzeko ardurarik, jarrerarik, gogoetarik ez dugula uste dut, eta horren ordez, konplexu gehiegi! Espresio horiek ingelesez ordez gaztelaraz baleude erreazio bera al genuke? Ingelesez jarrita maila jasoagoko, europarrago... sentitzen al gara? Egiten al gaitu? Emaizta bera da, ordea: gurea ordezkatu, gurea 2. mailako, gurea gorde, ezkatatu... Marka da gurea! Aldiz, gureak behar luke marka. Euskaratik eta euskaraz!

(IÑAKI MURUA, BERTSOLARI ETA IRAKASLEA)

"Europar ezin gara pertsona ondradu edo zintzoak izan, besteak dituzten aukeren gainetik bizi garelako. Sistemak ez digu beste aukerarik eskaintzen; min eman behar diezu beste batzuei, derrigorrez. Berdeek gorantza doaz, baina horiek ere populismo ekologikoa besterik ez dute egiten: egoerari ezin diogu bueltarik eman produkzio eta kontsumo era aldatu barik. Altxamendu antzerakoa eman beharko da azkenean, jendeak ezingo du-eta aukera falta hori jasan bizitza guztirako, euren aukerak beste batzuk nahi duten eran erabiltzen dituzten bitartean. Bizitza-estilo hau ez da jasangarria"

(STEPHAN LESSENICH, SOZIOLOGOA)

## Erosketak euskeraz koloreztatzen

Gaur 20:00etan itxiko dabe eguaztenaz geroztik Toribio Etxebarria kalian martxan egon dan Udako Beherapenen Azokia. Urtero lez, Eibar Merkataritza Gune Irekiak antolatzen daben factoring edo azokia eskintza berezixak egitteko aprobe txau dabe dendari askok. Horrekin batera, ...eta kitto! Eus-kara Elkar-teak-ua-k Euskeraz Primeran! kanpaiñako mahaixa ipiñi dabe, jendia



erosketak euskeraz egittera animatzeko asmua-  
rekin eta, hiru egunetan inguratu dan jendiak, eus-  
keria erabiltzeko hartu daben konpromisuaren ara-  
bera, urez betetako hiru ontzixetara kolore dife-  
rentia zeken tantanak bota dittu eta, trukian, eros-  
ketetarako poltsa bana jaso dabe opari. Gaiñera,  
parte hartu daben guztien artian 100 euroko eros-  
keta-txartela zozketatu dabe gaur eguardixan.

## Legarreko garaje municipalak daken egoeriarekin kezkatuta

Legarreko Ospittaleko bihargiñak, ber-  
tan bizi diranak eta euren famelixeta-  
kuak gero eta kezka haundixagua dake,



eraikiñaren azpitan da-  
guazen garajien egoeria  
dala eta. San Andres za-  
harren egoitzaren azpi-  
xan, oiñarrixan daguazen  
garajiak Udalarenak dira  
eta, erredakziñora bialdu  
dittuen hainbat argazki-  
ttan ikusi leikian mo-  
duan, ur-filtraziñuak kalte  
haundixak eragin dittue  
garajietan, "baitta Ospittalaren gaiñeko te-  
rrazan be. Ura sartzen dala eta, azken pi-  
suko logela bat ezin leike erabilli. Garajiak  
eta egoitza udalarenak dira, baiña kon-  
ponketetan dirurik ez dabela gastauko  
esaten dihardue 10 urtian, atxaki modura  
laster Diputaziñuarenak izango dirala era-  
billitta. Kontua da aldaketa hori egitteko  
epia ekaiñaren 30ian amaittu zala eta ez



dabela hitzarmenik siñatu". Gauzak holan,  
konponketak egingo diran eta, hala bada,  
zenbat gehixago itxoin biharko daben gal-  
detu nahi detse fundaziñoko presidentia  
dan Miguel de los Toyos alkatiari. Eta, bi-  
de batez, San Andres egoitzako bihargin  
guztieri eskerrak emon nahi detsez, "zain-  
tzen dittuen gure senidieri emoten detsen  
arreta eta maitasunarengaittik".

## Tecman-eko bihargiñak greba mugagabian

Hitzarmen duiñaren aldeko greba mugagabian dagoz Mendaroko ospittalian  
mantenimendu zerbitzurako kontratauta dagan Tecman SVA SL enpresako bihar-  
giñak. Gaur 18. greba eguna beteko dabe eta, egoeria aldatu ezian, lan eta hi-  
tzarmen duiñaren aldeko grebarekin segitzeko asmua dakela diñue. Euren ber-  
betan, "Tecman eta Osakidetzak ez dabe akordiorik nahi. Oin dala egun batzuk ha-  
si genduan grebarekin lortu nahi doguna oiñarri-oiñarrixkua da: jasan bihar dogun  
prekarietate laboralarekin amaitzia eta behingoz gure lan baldintzak duintzia".





## Astekarixa Sanfermiñetan 22 urtetan

Aurten be barixakuan astekarixa jaso eta Iruñera jian ziran "Azittaingo Izkuok" Sanfermiñetan ordu batzuk egittera. Eurak dira guri propagandia egitten zenbat urte daroiazen beste iñork baiño hobeto dakixenak: "22. urtia bete dogu oinguan udale-*txe aurrian fotografixia egitten!*". Eta tradiziñuarekin jarraitzeko asmuarekin dabiz, animoso gaiñera: "Gora ...eta kitto!, gora San Fermin, gora Azittaingo izkuok!!!".

## Nieves Atxarendako izan da Amañako Jaixetako biajia

Martitzenian jaso eban Nieves Atxak Barceló biajietako buleguan Amañako Jaixetako zozketan egokittu jakon lagun birendako Amsterdamerako bidaia edarra. Jai batzordiak saldutako rifetako sarixa Nieves Atxak erosittako 8.031 zenbakixari, uztaillaren 5eko ONCE-ren zozketan sarittutako zenbakixaren azken lau zifrekin bat zetorren numeruari egokittu jakon. Argazkixan, irabazlia Barceló eta Amañako Jai batzordeko ordezkariexekin.



## autuan



### BIZILABE TAILLARRA

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. eta DBHko 1. eta 2. mailletako ikasliendako Bizilabe taillar teknologikua antolatu dau Udalak, errekontza eta motore termikuen inguruan trebatu nahi dabenendako. Duan izango da, irailaren 2tik 6ra bittartian eta Elhuyarrek emongo dittuan klasiak Indianokua gaztelekuan izango dira, euskeraz, goizeko 09:30xetatik 11:30xetara. Eskeraek egitteko Pegorara jo leike, abuztuaren 9ra arte. Informaziño gehixagorako eibar.eus webgunian begiratu leike.



**IRAZABAL**  
clínica dental



**Abuztuan** ere **ZABALIK**

Julian Etxeberria, 12 - 1º - 20600 EIBAR  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)

**MUGIKA**  
**HARATEGIA**

Urkizu, 18

943120194

*Abuztuan ere  
goizez zabalik  
08:30-13:30*



## Egogaiñen azpikontrataziñuak ugaritzen diharduela salatu dabe

Egogaineko Borrokaldiko Antolakuntza Taldeko LAB, ELA eta CCOO sindikatuen idatzizak diñuanari jarraituta, "aspaldi salatzen dihardugu Gipuzkoako Foru Aldundiak Egogain nagusien egoitzako bihargiñekin eta bertan bizi diran egoiliarrekin dakan jarrera eta ointxe, idatzi honekin, azpikontrataziñuarekin zer gertatzen ari dan salatu nahi dogu. Beste ezer baiño lehen, Egogain kudeaketa publikua dakan Gipuzkoako azken egoitza dala eta bertan menpekotasuna daken pertsonak zaintzen dittugula azpimarratzia nahi dogu. Kontua da Gipuzkoako Foru Aldundiak 'persona helburu' dakala etenbarik errepikatzen eta komunikabidiak propaganda-ekin josten dittuan bittartian, lanpostu



mordua deuseztatiaz gain, guztiona dan zerbitzu publikua enpresa pribatuen esku lagatzen ari dala eta, azken aldixan, sekula baiño gehiago: garbitzailliak, 'zaintzaille' izendatzen gaittuen erizain laguntzailiak, erizaiñak, mantenimenduko bihargiñak, terapiako monitoriak, botika prestatzailliak, pertsonen garraiuarekin ardurtzen diranak eta labanderixia, bestiak beste. Aldundiak onartu ez arren, zaintzen dittuguneri emoten jakuen arretaren kalidadiar kalte egitten detsa horrek, enpresa horrek bakarrik euren poltsikuari begiratzten detselako eta ez jakuelako ardura lanpostu guztiak ez betetzia, bihargiñak etenbarik aldatzen ibiltzia, lan baldintza kaxkarrak izatia eta horrelako kontuak".

## Lambretta moto-hotsak hartu zittuen kaliak zapatuan

Eibarko Lambretta Klubaren eskutik asteburuan egin zan XVI. Lambretta konzentraziñuaren harira, zapatuan ia ehun motorzale alkartu ziran Untzagan. Urteroko martxan, konzentraziñuan parte hartzeko izena emon ebenen motorrak ikusteko aukeria egon zan goiz osuan, eguardiko kalejirari ekin baiño lehen. Era guztietako Lambretta motorrak herriko kalietan mar-txa betian erakutsi ondoren, San Kristobalera igo eta han laga zittuen, jai-xetan zebillen jendiak ikusteko, jarraixan Lekeition zeken bazkarira juateko kostarako bidia hartu baiño lehen. Eta, egunerako plana biribiltzeko, La Red Teatrorren ikuskizunarekin gozatzeko aukeria euki eben motorzaliak.



## FELICITAS ETXEBERRIA ELORZA

*"Harro adi Kantauri itsasoa, ta  
haien betiko loa betiko kanta zan"*

**Esker onez, Eibarko Sortu**




## Confebaskeko presidente izendatu eben atzo Eduardo Zubiaurre

Atzo izendatu eben Eduardo Zubiaurre Confebaskeko presidente, Adegri patronalak egindako proposamenari jarraituta. Izan be, Confebasken estatutuen arabera, lurralde bakotzeko patronalak txandaka proposatuko dabe presidentegaixa eta Adegiren txanda zan oinguan. Jaz Zubiaurre enpresaren kudeatzailliak azken lau urtiotan kargua bete dabene beste eibartar baten, Roberto Larrañagaren lekua hartu dau. Zubiaurre aurretik be izan zan Adegiko presidentia sei urtian (2006-2012). Izendapenaren barri apirillean emon eben arren, Larrañagak uztaillian amaitzen eban agintaldixa eta, horregaittik, atzora arte ez dabe aldaketarik egin.



## “Eibarko Unibertsitate Laborala, 1958-2018” liburua Ego Ibarraren webgunian

Eibarko Unibersidade Laboralaren 50. urterena ospatzeko argitaratutako “Eibarko Unibertsitate Laborala, 1958-2018” liburua interneten kontsultatu leike, oso-osorik, egoibarra.eus webgunian, argitalpenen atalian. 386 orrialdetan biltzen diran 16 ataleko liburu mardulian dagoz jasota Eibarko Unibersidade Laboralaren historia eta 50 urte honetako bizipen guztiak. Miguel Arroita-jaregui, Juan Domingo Barahona, Jose Antonio Camacho eta Antxon Narbaiza egilliak diñuen moduan, UNIren lehen urtietako historiarekin batera, berrogeita hamar ikasleren esperientzia eta oroitzapenak jaso dittue, bakotzak bere sasoiari tokatzen jakon ikasturtia gogoratuta, baita administrazio eta zerbitzuetako bihargiñen testigantzak be.



*igo dittu aurten Udalak fatxadak zaharbarritzatzeko edota igogailluak ipiñi edo aldatzeko emoten dittuan dirulaguntzak eta horretarako 200.000 euroko partida ezarri dabe aurrekontuan. Igogaillu barrixa ipintziagaikitik 9.000 euro emongo dabe gehixen jota eta ordezkaziagaikitik, barriz, 4.500 euro.*

## Primerako giruan ospatu zittuen San Kristobalگو jaixak



San Kristobal auzokuak edarto ospatu zittuen jaixak asteburuan, La Rampa jai batzordiak preparau eban egitarauari esker. Barixaku arratsaldian txupinazuarekin batera egin eban eztanda jaixak eta, Orkrestaren musikaren erritmora hasittako arratsaldiaren atzetik, Ramoncinen musikiak bete eban gaba. Zapatuan eta domekan, barriz, goizetik gabera bi-

ttartian era guztietako txapelketak, jolasak eta beste hamaika jarduera egin ziran auzuan. Eta jaixak datorren urtera arte agurtu aurretik, Jai Batzordiak saldutako errifaren zozketia egin zan: lehen sarixa 1.178 zenbakixari egokitu jako (erretserbako zenbakixak, 237 eta 1.509) eta bigarrena 258 zenbakixari (erretserbako zenbakixak 1.133 eta 1.948).

## PACO LOPEZ GISASOLA

2019ko ekainaren 29an hil zen, 75 urterekin



*Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez. EZ ZAITUGU INOIZ AHAZTUKO.*  
ETXEKOAK





*Idurre Iriondo arkitekto eta marrazkigileak hamabostero argitaratzen ditu komiki-tirak ...eta kitto!-n.*

**IDURRE IRIONDO (ARKITEKTOA ETA MARRAZKIGILEA):**

## “Egurraren erabilera sustatu nahi dugu”

**- 75 tira sortu dituzu azken urte hauetan aldizkari honetarako. Zelako balorazioa egiten duzu?**

Eibarren gertatzen diren gauzei buruz eta garrantzia zeri ematen diodanari buruz pentsarazten dit Tutulumendik. Agian alde batera lagata dauden gaiak Tutulumendiren bitartez ateratzea gustatzen zait. Korapilatsuak izan daitezkeen gaiak lantzeko aukera ematen dit, umorearen bitartez. Aurten, urtariletik aurrera, aktiboki jarrera edo ikuspuntu polarizatuagoa hartzea erabaki dut, kaña gehiago sartzea. Tentsioa mantendu nahian ibiltzen naiz, beti kritikotasun batekin, pentsamendu hutsetik urrunduz.

**- Aktualitatea jarraitzea eskatuko dizun lana izango da.**

Lagunak maiz erabiltzen ditut, euren bitartez herriko leku desberdinetan zer gertatzen ari den jakiten dut. Txutxumutxuak ez ezik, ...eta kitto!-ko albisteak eta udal-txeko agenda ere asko erabiltzen ditut. Ekitaldi edo jai garrantzitsu baten bitartez agian zeozer esan ahal dut...

**- Nondik datorkizu marrazteko zaletasuna?**

Aita margolaria dut eta nik betidanik marraztu izan dut. Gainera, nire lanbidean oso

garrantzitsua da. Marrazki bizidunak betidanik gustatu izan zaizkit. Komikia oso komunikazio-erreminta indartsua iruditzen zait. Unibertsitatean nengoen bitartean, Aina Azpiazu ilustratzailearekin hasi nintzen ikasten. Orduan ...eta kitto!-n horrelako zeozer egitea ondo egongo zela pentsatu nuen. Baina momentu hartan ez neukan gaitasunik. Enfoke bat behar duzu. Tira desberdinetan komikilari bakoitzak gaiak tratatzeko modu bat dauka –personaia baten bitartez, beti aldatzen ari den egoera baten bidez, marrazki abstraktuak erabiliz, sasoi batera joanda... Nire komunikatzeko modua garatu arte denbora bat pasatu zen. Bi-hiru urte eman nituen ikastaro hauetan marrazteko modu desberdinak ikasten. Marrazkia eta umorea lotzea beti gustatu zait. Kritika oso potoloak ikusten dira, eta hitzez esaten ez duzuna marrazkiaren bitartez esan dezakezu.

**- Nolakoa da Tutulumendi?**

Noizean behin, Tutulumendi ni bezalakoa dela esaten didate. Pertsona gazte-heldua da, gertatzen diren gauzak estereotipoetatik kanpo irten nahian interpretatzen dituen. Apur bat lasaia eta inuzentea, baina denbora guztian kutsu pikante hori atera nahian.

Donostian arkitektura ikasketak amaitzen zituen bitartean, Idurre Iriondo eibartarrak 2015eko gabonen bezperan eman zion bizitza **TUTULUMENDI**ri, aldizkari honetan hamabostean behin kaleratzen dugun komikiaren pertsonaiari. Hiru urte eta erdi hauetan, ikasketak amaitu, masterra egin eta I'M Arkitektura estudioa zabaldu du Eibarren, Asier Mas kidearekin batera. Arkitektura, marrazkigintza eta jasangarritasuna dira bere bizitzako ardatzak. Egurraren eta material jasangarrien erabilera sustatu nahi du eta, aldi berean, azken bi urteetan Debegesan dihardu, Agenda 21eko koordinatzaile bezala.



**- Asier Masekin batera arkitektura-estudioa zabaldu duzu aurten Eibarren.**

Arkitektura da nire bizitzako ardatz zentrala. Baina horrekin oso lotuta daude “Agenda 21” ean egiten dudana –lurraldearekiko ikuspegia ematen didalako– edo komikigile bezala egiten dudana “begirale” lana. Arkitektura ulertu behar da eskala guztietan lan egiten duen ofizio bat bezala, altzarigintzatik hasita hirigintzara. Ikasten zauden bitartean konturatzaren zara hirien formen bitartez gizarteak eraldatzen direla, eta horrek bihurtzen zaitu begirale. Lurraldea antolatzeko modua eta gure gizarteko sektore desberdinen funtzionamendua guztiz lotuta daude. Eta guzti horretatik datorkit egurrarekiko pasioa.

**- Izan ere, egurrezko egitura eta erakuntzei buruzko masterra egin duzu.**

Bai, eta ez nuen espero hainbeste gauza aurkitzea. Egurraren erabilera hainbat onura dakartza: basogintza jasangarria, erakuntza-prozesu garbi eta ez kutsatzailea... Historikoki gizakiak beti erabili izan duen materiala da egurra, baina azken 100 urteetan eten bat izan du. Dena dela, berreskuratzea daiteke.



**- Beraz, egurra aurkikuntza izan da zu-  
retzat.**

Eguraren frikia bihurtu naiz. Nazkatuta dauzkat ingurukoak. Mundu bat da: egur mota desberdinak bereiztea, zeintzuk dau- den tratatuta eta zeintzuk ez, interben- tzioak egokiak diren edo ez, pipia edo kar- koma sartu den... denbora guztian azter- keta lanean nabil eta, aldi berean, Alema- nia, Frantzia, Belgika eta Italia bezalako le- kuetan dauden proiektuei begira. Ikasten duzu zer egur mota erabili diren egitura nagusirako, bigarren mailako egiturarako, egur bakoitzaren funtzioa... Ez da berdina haritza, pinua edo lizarra. Aurkikuntza hori mundu bat izan da eta denbora guztian na- go ikasten.



**- Estudioan zertan diharduzue orain?**

Proiektu potolo bat daukagu eskuartean, termita arazoak daudelako eraikin horretan. Egitura osoaren azterketa sakona egin on- doren, egitura hori konpontzeko hartuko di- tugun neurriak eta zer egingo den elemen- tu guztiekin zeintzuk izango diren ondo- rioztatzen da. Gero, termitak eraikinetik bo- tatzeko tratamendua enpresa espezializa- tuen esku lagatzen da. Ematen du ezetz, baina egurraren esparrua oso araututa da- go. Karkomarekin edo pipiarekin egituraz- ko arazoa ez da hain potoloa izaten, baina termitarekin izugarria da, egurra barrutik ja- ten baitu. Eibarren termita asko dago, he- zetasun asko dagoelako lur azpian eta erai- kinek erdisotoak dauzkatelako. Hau kon- trolatu egin behar da, eta udaletxean ere eskatzen ari gara. "Termiten mapa" dela- koak kabien kokapena zehazten du, eta ho- rien bitartez adituek hiri nukleoaren termi- tak hil egiten dituzte.

**- Hartutako bideari jarraituko diozue?**

Gure aldetik egurraren eta material jasan- garrien erabilera sustatu nahi dugu. Jakinda munduko kutsaduraren heren bat eraikun- tza eta etxeetatik datorrela, uste dugu ho- rren aurrean jarrera trinko bat eduki behar dugula, eta aukeratzen dugun materialetan eta eraikuntza moduan badago ardura ho- rren zati handi bat. Euskal Herriaren erdia baino gehiago basoa da, eta baso horretatik erdia baino gehiago pinua da. Oso potentzial handia daukagu. Egur hau altzariak edo egi- turazko elementuak egiteko erabiltzen ba- da, askoz ere balio handiagoa emango diogu

egur horri. Baina egur hori egiteko basoa on- do zaindu eta jakintza asko behar da. Jabe txiki pila bat dago eta horien gestioa ez da erraza. Baso-kudeaketa egoki batetik hasi behar da. Bide luzea dago hor egiteko.

**- Aldi berean "Agenda 21-Jasangarritasun-  
erako Hezi" proiektuan ere lan egi-  
ten duzu.**

Agenda 21eko koordintzaile moduan dihardut Aitziber Kortazarrekin batera Debegesan. Nire lana otsailetik aurrera hasten da batez ere. Ikastetxeekin egute- gia antolatzen dut eta ikastetxe eta udale- ko zinegotzien artean bitartekari-lanak egi- ten ditut. Helburua maiatzean edo ekaine- an eskualdeko udaletxeetara proposamen batzuekin heltzea da, koerenteak eta ikas- leek landutakoak. Debegesak 17 urte dara- matza lan horretan. Belaunaldi oso bat atera da hondakinen kudeaketa, ura eta ibaiak, dibertsitatea, edo kontsumo eta ekoizpen arduratsuari buruzko ideia batzuekin. Gaur egun ideia sinpleak irudi- tzen zaizkigu, baina orain dela 20 urte ez ziren lantzen. Eskoletan lantzen diren ideia guzti horiek gero udaletxeetara eramaten dituzte, proposamen bihurtuta. Udalbatza batean aurkezten dira, eta Eibarren kasuan zinegotzien aurrean. Ikasleek sortutako proposamen guztietatik laurden bat aurre- ra doa. Funtzio sozial garrantzitsua dauka horrek. Ikasleek lan handia egiten dute, eta egia da Agenda 21ek ere moldatzen duela ikastetxeen funtzionatzeko modua. Hu- rrengo ikasturteko gaiak ekoizpen eta kon- tsumo arduratsua izango dira.



**Armagin, 3-5 beheak**

-  merchandising
-  serigrafia
-  lanerako erropa

publiresa@publiresa.com    943 701 497 / 615 799 419



**ezagutzen dituzu gure sare sozialak?**






gaztekitto



**EIBAR**



**Beilatokia**  
**Funeuskadi Eibar:**  
 Otaola, 27

**ELGOIBAR**



**Beilatokia:**  
**SIGMA Industrialdea**  
 (Olasoko hilerriaren ondoan)



**Bulegoa Eibarko erdialdean**

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**

**943 20 19 51**    [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea





# Itsasoa, mendia eta denboran bidaia GEOPARKEAN

**O**rain dela urte batzuk flysch berba ikasi genuen. Ez genekien Mutriku, Deba eta Zumaia arteko itsaslaba-rreko haitz-geruzek osatzen duten formazio horiek izen hori zutenik, baina gaur egun berba hori entzunda hara doa gure burua. Formazio ikusgarriak dira, hainbat etxe eta bulegoetako paretak koloreztatzen duten argazki erraldoietakoa protagonista. Edozein turista erakartzeko amu bikaina.

Baina Geoparkea argazki polit bat baino gehiago da. Geologoek jolas-parkea da. Lurraren historiako 60 milioi urte baino gehiago irakur daitezke bertan, eskuekin ukitu daitezkeen geruzetan. Haitz-geruza bakoitzak historiaren kapitulu bat kontatzen du eta, adibidez, bisitarien artean jakingura sortzen du dinosauroen desagerepenaren lekuko den lerro beltz eta meheak.

## Bisita gidatuak

Paisaiatz gozatzeaz gain, Lurraren historian zehar bidaia egiteko aukera eskaintzen du Geoparkeak bisita gidatuen bitartez. 19 bisita-mota ezberdin daude, oinez zein itsasontziz egin daitezkeenak. 'Flysch beltza' (Geoparkeko itsas hondoa eta flysch zaharrena ezagutzeko), 'Nautilus' (flyscheko fosilak ikusteko), 'Marearteko zabalgunea' (flyscheko biologiarri erreparatzeko), 'Zazpi hondartzak' (flysch beltzaren labarrak itsasotik behatzeko), 'Flyscharen ibilbidea' (joan-etorriko nabigazioa Zumaia eta Mutriku artean) eta 'Flyscha, begirada batean' izeneko bisita gidatuak egin daitezke, besteak beste, flyscharen inguruan gehiago jakiteko eta historiaren igarobidea hurbiletik sentitzeko.

Egunero begien aurrean duzun hori etengabe baloratzea zaila da. Ohitu egiten zara, baita gauzarik ederrenera ere. Eibar inguruan toki eder ugari ditugu eta horren erakuslea garbia da Geoparkea. Mutriku, Deba eta Zumaia inguratzen dituen altxor bat daukagu Eibartik minutu gutxira, mendien eta itsasoaren artean. Historiaren pasarteak kontatzen dituen liburua, begiak argitzen dituen inguru paregabea.



Naturak eskaintzen digun altxorrez gain, gizakiak egindakoak ere badu zeresana Geoparkearen barruan. Horrela, Debako Santa Maria eliza ikusteko (Gipuzkoako elizarik ikusgarrienetakoa, euskal gotikoaren altxorra), Mutrikuko hirigune historikoan zehar ibilaldia egiteko (itsasoarekin lotura zuzena duen herria eta Monumentu Multzoz izendatua), flyscheko olagarroaren inguruan gehiago ezagutzeko eta dastatzeko, Mutrikuko Olatz bailara ezagutu eta Goienetxe baserrian gazta eta txakolina dastatzeko, Mutrikuko Arrietakua Jaurregia bisitatzeko (XVIII. mendekoa), eta Debako Lastur auzoko errota zaharrea artoa ehotu ondoren taloak egin eta txistorrarekin jateko (familian egiteko ekintza) aukera eskaintzen da, besteak beste.

Bisita gidatuen zerrenda zabala da, baina taldean joanez gero norberaren neurri diseinatutako bisitak egiteko aukera ere badago.

## Geoparkea euskeraz

Debako, Mutrikuko eta Zumaiaiko turismo bulegoetan Geoparkearen inguruko informazioa jaso daiteke, eta baita [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus) webgunean ere. Bertan bisita gidatuen zehaztasunak aurkitu daitezke, eta zein egun eta ordutan egingo diren ikusi egutegian.

Uztailaren amaieran eta abuztuan zehar ia egunero dago bisitaren bat euskeraz egiteko aukera. Beharrezkoa da erreserba egitea, tokiak mugatuak izaten baitira.



Informatizando

# KARTELERIA DIGITALA

ZURE NEGOZIOAREN IRAGARKIA. EIBAR ETA ELGOIBARREN.

TABERNETAN



ZINEMETAN



# 30

## PANTAILA

## KARTELERIA DIGITALA



HARATEGIETAN



OKINDEGIETAN



HARREMANETAN JARTZEKO

[WWW.INFORMATICANDO.EUS](http://WWW.INFORMATICANDO.EUS)

943 15 06 22

B

E

R

T

S

O

# ARRATE BEZPERA

IRAILAK 7 zapatua 21:00 KANTABRIA

andoni



EGAÑA



LUJANBIO

maialen

oihana



IGUARAN



LIZASO

sebastian

# SARRERAK SALGAI

astelehenetik aurrera

KULTU, SAGARBITZA eta KANTABRIAn

A

F

A

R

I

A



# Maleta prest jairik jai ibiltzeko

**E**z da gehiago itxaron behar **MUTRIKUKO Malen jai**ez gozatzeko. Gaur bertan txosnak irekiko dituzte eta 'Arrano pertxak' eta 'Meets Gatomek' taldeek saio bikoitza eskainiko dute. Bihar, zapatua, **Mozorro eguna** ospatuko da eta txosnagunea mozorrotuko dute, dantza-ikuskitzuna egongo da, zestapunta-txapelketa lehiatuko da eta DJ Jussefek ikuskizuna eskainiko du. **Domekan**, Malen bezperan, **Gazte eguna** ospatuko da. Goizetik gauera egitarau zabala prestatu dute eta, tartean, 'gazte bazkaixa', elektrotxaranga, larrain-dantza herrikoia, danborrada eta kontzertuak egongo dira. **Astelehena, Malen eguna**, ekintzaz beteriko eguna izango da berriz ere. Haur-parkea, musika bandaren kontzertua, sokamuturra, herrikirolak, mariatxia, kontzertuak (tartean, 'Mugi Panderoa'), su artifizialak... ez da ezer faltako. **Malentxiki egunean** haurparkea, erraldoiak eta buruhandiak, pottokak eta zezen txikiak, bazkari herrikoia eta hainbat musika emanaldi ('Gozategi') egingo dira, besteak beste. **Kuadrilla egunean**, egun osoko egitarau betearen ondoren, 'Liher' eta 'Willis Drummond' taldeen kontzertuek eguna borobilduko dute; eta **Santixo egunarekin** emango zaio amaiera jaiari.

**ERMUAN** ere gaurtik izango dugu **jai giroa**, jaietako ikurretako bat den **play-back-lehiaketarekin**. Bihar hainbat kirolproba eta jolas egingo dira, eta 'Medina Azahara' taldeak kontzertua eskainiko du San Pelaio plazan. **Domekan eta astelehenean** ere hainbat ekintza prestatu dituzte, eta **martitzenean Umeen eguna** ospatuko da. Buruhandiak, haurrentzako tailerrak, txokolate-jana, musika eta apar-jaiak egingo dira, eta 'Festan Blai' gunea jarriko dute gazteentzat. **24an, Santixau bezperan**, txarangen aurkezpena eta kalejira egingo da herriko kaleetan eta gauean 'Orihen', 'We are apes, hello!' eta 'Cronopolis' taldeek kontzertua eskainiko dute. **25ean eta 26an** herri-kirolak, pelota partiduak, larrain-dantza, kale-ikuskitzuna, eta musika-ikuskitzuna izango dira, besteak beste. Eta **27an**, jaiari amaiera emateko, paella-lehiaketa tradizionala egingo da eta 'Moceadas' taldeak kontzertua eskainiko du.

**SORALUZEN 24an hasiko dira jaiak ospatzen**. 12:30ean txosnak irekiko dituzte eta gauean kontzertuak egongo dira. Tartean, ekintza ugari. **Santiago egunean** ere, **25ean**, goizetik gauerako egitaraua prestatu dute herri-bazkaria, hainbat txapelketa, 'Broken brothers' taldearen kale-

Sanjuanak, Amañako jaiak eta San Kristobalgo jaiak pasata, Eibarren atsedena hartu dugu jaiari dagokienez. Inguruko herrietan, ordea, martxa betean ibiliko dira datozen egunotan. Malen jaiak, Santixauak, Santanak... uztaillari amaiera ezin hobea emateko aukera egongo da Mutriku, Ermua, Mendaro eta Soraluzen, besteak beste. Festarako gogo gehiago izanez gero, abuztuko agenda beteta dator Eibar (San Salvador eta Azitain), Zumaia, Deba, Elgoibar eta beste hainbat tokitan.

jira eta 'Duo Plaentxiren' omenaldia tarteko. **26an** 'Soraluzeke Gaiteroek' emango diote hasiera **Santa Ana egunari** goizeko 07:00etan. Gero zezenak, bakailao-lehiaketa, txistulariak, elkartasun bazkaria, kalejirak, larrain-dantza eta kontzertuak egongo dira. **27an** emango zaie amaiera jaiari, baina egun handia izango dute aurretik eta musikak protagonismo handia edukiko du elektrotxarangarekin, disko-festarekin eta kontzertuekin.

**MENDARON 24tik 28ra prestatu dute jaietako egitaraua**. **24an** 19:30ean izango da txupinazioa eta gauean musika nagusituko da. **25ean** haurrentzako txirrista erraldoia jarriko da Azpilgoetan eta kantaldia, dantza, zezen txikiak eta poniak, danborrada eta 'Akerbeltz' taldearen kontzertua egongo dira. **26an** Gipuzkoako I. mailako Aizkolari Txapelketa lehiatuko da eta arratsalde eta gauean 'Lehian' taldeak dantzaldia eskainiko du. **27an** herri-bazkaria egingo da eta, koadrilen arteko jolasen ondoren, 'Su Ta Gar' taldeak kontzertua eskainiko du. **28an**, azkenik, zaharren eta haurren eguna ospatuko da euskal dantzekin, pilota-jaialdiarekin, haurrentzako jolas-parkearekin eta haurren danborradarekin.



## PEDRO OSORO ELKORO

I. URTEURRENA: 2018-VII-28

"Betik egongo zara gure bihotzetan"

ETXEKOAK

Bere aldeko URTEURREN MEZA ospatuko da uztailaren 28an (domeka), 12.00etan, SAN ANDRES parrokiaren.



## ALBERTO SAN EMETERIO: “Nik batutakoa eibartar guztiona da”

Alberto San Emeteriok Eibarko historia jasotzen dihardu, etengabe, azken urteotan. Bere jaioterria maite duelako. Baina ez da hor geratzen bere jardunbidea, *“gure herria besteei ere ezagunarazteko”* ahalegina egiten duelako. Informazioa jasotzen saiatzen da Amañakoa, serio baina maila pribatuan, *“Ego Ibarak eta beste maila bateko profesionalak”* egiten dutenetik aldentuta. *“Zaletua besterik ez naiz ni, Eibar beste guztien aurretik jartzen duena”*. Bere apalean, dena dela, ez da gutxi sasoi bateko DJ-ak batzea lortu duena.

**E**ibarko historiaren memoria berreskuratzeko lanean dihardu San Emeteriok. Ametsa tabernaren barraren atzean aurkitu dugu sasoi batean DJ moduan lan egin zuena: *“Batez ere, 80. eta 90. hamarkadetako musikarekin egin nuen lan, baina dagoeneko baztertuta dut jardun hori. Aukera berezietan bakarrik heltzen diot: ezkontza bat dela, ekintza solidario baterako...”*. Baina Albertok zeozer ez badu baztertu, hori Eibarko memoria historikorako irudiak batzea da; bi hamarkadatik gora daramatza ahalegin horretan: *“Bildumaztzaile bat besterik ez naiz, nire herria maite dudalako bide horretan sartu naizena”*. 30.000 argazkitik gora bereganatu ditu, *“gehienak Plazaola, Ojanguren, Ortuoste eta Juanito Txokoren fondoetatik eskuratutakoak”*. Ez dira, hala ere, bakarrik: *“Baditut bilduma pribatuetako hainbat irudi ere, euren baimenik gabe argia ikusi ezin dutenak”*. Zailtasunak zailtasun, gure protagonistak ez dio eperik jartzen dokumentazio eta artxibo lanari.

Aurrekoetz gain, SER kateko Eibarko emisoran izaten da eguaztenero *“Ser parte de la historia”* irratsaioan *“Hoy por hoy Eibar”* programa egiten. *“Bigarren denboraldia amaitu dugu eta hirugarrena prestatzen dihardugu. Aspaldiko istorioak dakarzkigu gogora, hain-*

*bat pertsonaia eta kale-izenekin batera”*. Lehen etapa batean ezaugarri bereziko pertsonaje, kale eta denden berri ematen zuen irratsaioa gaur egun gehiago zentratzen da giza- eta lan-arloko elkarrizketetan: *“Mardaras Eibar FT-ko presidente izandakoa, Etxeberria moda-gizona, Martin sasoi bateko kamare-roa... izan ditugu irratian”*.

Youtuben (eibardemivida@eibarreses) zintzilikatuko dituen bideoetan ahalegintzen da beretik ez ipintzen: *“Ahal den neurrian gertatutakoa hotzean kaleratu nahi izaten dut, gertatutakoa gertatu zen moduan”*. Horrela jaso ahal izango dugu gerra zibilaren deskripzioa gure hiriri dagokionez. NODO ospetsuaren irudiak ere baliatu ditu gure historia berreskuratzearren lan horretan: *“Eibar askotan agertzen da bertan: bizikletak direla, Txonta auzoko irudiekin, autopistaren lehen urratsak...”*. Zortzi bideo ditu guztion eskura une honetan, *“material gehiago izanda ere, ez dudalako inor ito nahi nire gauzekin”*.

Tamaina handia hartu du bere zaletasunarekin egindako lanak, berak espero zuena baino handiagoa: *“Muturra sartzen hasi nintzen kuriositatez, jendeak pasatzen zizkidan irudi eta argazkiekin. Gero, e-mailez jasotzen hasi nintzen, Eusko Jaurlaritzako orrialdeetatik berreskuratutako irudiekin, fondo publikoetatik*



*lortzen nituenekin, familia batzuek lagatako argazkiez ahaztu barik”*. Beti ere, egile-eskubideak eta besteekiko errespetuaren bidetik, *“atzean ez dudalako ezer gordetzen; nire bilduma guztiz transparentea da, edozeinek erabiltzeko modukoa”*.

Arazo gutxiago izan du 1920. hamarkadako irudiak batzen 1980koak baino: *“Ez dago erraza kolorezkoak izan behar diren irudi horiek biltzea. Eta interesa dute niretzat, sasoi horretan manifestazioak eta halakoak egunero izaten zirelako. Eskertuko nuke sasoi hartako irudiak batzea puzzlea osatzeko”*. Sare sozialen bidez lortu duen hedapenarekin oso esker oneko azaltzen da: *“Irudiak beste edonori eskaintzea da nire funtzioa. Nik batzen dudana ez da nirea, eibartar guztiona baizik. Horrela, zailagoa izango da gure historiaren zatia galtzea”*.

Ondo lantzen ditu San Emeteriok bere argazki-bildumak, *“nire ustez egokitzen zaizkien*

*musikarekin”*. Horrela, historia bat sortzen die irudiei, *“arima emanez”*, berak besteei heltzeko asmatutakoa, *“nondik gatzetzen jakin dezagun”*. 1802koa da orain arte lortu duen irudi zaharrena, *“erdi marrazkia, erdi pintura dena”*, eta San Andres eliza irudikatzen duena, oraindik izendatu ez duen *“sasoi hartako kale batekin”*.

Behin eta berriz errepikatzen digu bera *“zaletu bat besterik”* ez dela. Eta badirela profesionalak, *“Javitxo Lapeyra, esaterako”*, lan bikaina egin dutenak gure memoria berreskuratzen. *“Eibarren alde”* egiten duela. Errepublikasasoiko argazkiak maite ditu Albertok bereziki, *“Eibar benetan polita zela erakusten dutelako, askotan kontrakoa entzuten dugun arren, eta sasoi hura oso aurrerakoa izan zelako hezkuntza, justizia eta elkartzaren arloetan”*. Amorratu egiten da, ordea, Mola Eibarren sartu zen irudiarekin, *“hori ere gertatu zela jakin arren”*.

Sasoi ederra bizi dute Vicky Rojas eta Dalila Cabrera eibartarrek. Orain dela hainbat urte abiatu zuten proiektuak forma hartzen dihardu eta emozio handiko egunak dituzte aurretik. *Voragine* websailaren sortzaileak dira Vicky eta Dalila, etorkizun hurbilean zeresana eman dezakeen zientzia-fikziozko telesailaren zuzendariak. Berehala hasiko dituzte grabaketak eta, Bilbo inguruan ibiliko badira ere, hainbat eszena Eibarren filmatuko dituzte.



## Websail bat sortzeko zurrunbiloan

Zientzia-fikziozko istorioa kontatzen du *Voraginek*. “*Dimentsio arteko ate bat zabaldu eta handik bost urtera hasten da istorioa, bi errealtate kontatuz*”, Vickyren berbetan. “*Errealtate biak oso antzekoak dira, gertaera ezberdin bat kenduta, eta aldaketa txiki batek ondorio nabarmenak izan ditzake pertsona baten nortasunean edo bizitzan*”. Kaosaren teoria azaltzen duen tximeleta efektuak esplikatzeko bezala, tximeleta baten hegalean mugimendu soilak mundua alda dezake.

Hiru emakume dira *Voragineko* protagonistak, espia bi eta hiltzaile bat. “*Websailak zientzia-fikziozko testuingurua badu ere, gizakien inguruko hausnarketa egiten da bertan*”, Dalilak dioenez. “*Esparru soziala eta politikoa lantzen ditugu, baina batez ere pertsonaiek egiten duten nortasunaren bilaketa. Hau da, pertsona hauek nolakoak diren eta errealtate paralelo batean nolakoak izan daitezkeen ikustea, non dena berdina den baina era berean oso ezberdina*”.

### Minoriak irudikatuz

Websailak minorietan jartzen du arreta. Protagonistetako bat latinoamerikarra da, beste bat transexuala eta besteak antisietate-arazoa eta depresioa du. “*Fikzioan gehiegi landu ez diren gai gizatiarrei buruz egin nahi dugu berba*”, dio Dalilak. Vickyren ustez gai hauek zeharka tratatu ohi dira fikzioan eta eurek protagonismoa eman nahi diete, baina trama ez da euren izaera edo nortasunean zehazki zentratuko. “*Minoria hauek normalizatu nahi ditugu. Hau da, protagonistetako bat lesbiana izan dai-*

*teke, baina websaila ez da zentratuko armairutik noiz irten den eta horrelako kontuetan. Beste barik, lesbiana da eta kitto, baldintza horrek ez du tramarekin zerikusirik eta ez du zertan izan. Zergatik sortu behar ditugu beti mota bereko pertsonaia?”, hausnartzen du Dalilak.*

Vicky eta Dalilarentzat oso garrantzitsua da websailean minoriak irudikatzea, “*hazten geundenean horrelako telesail bat ikustea gustatuko litzatekeelako*”. Haurtzaroan eta nerabetasunean horrelako telesailak faltan bota zituzten biek eta Voraginekin pertsona asko ordezkaturik sentitzea espero dute. “*Ikusleak pentsatzea berari gertatzen zaizkion gauzak jende gehiagori gertatzen zaizkiola eta gauza horiek kontatzen dituzten istorioak daudela*”, dio Vickyk.

Hizkuntzari dagokionez, bestetik, euskerak protagonismo handia izango du. “*Azken batean euskera minoria bat da hizkuntzei dagokienez*”. Gainera, euskeraren garrantzia handia izango da trama ulertzeko, websailean aurkezten diren errealtate batean Franco inoiz ez delako existitu eta horrek historia asko aldatzen du, gaur egun euskeraren presentzia handiagoa izango litzatekeelako seguruenik.

### Gidoi perfektuaren bila

Dalilak aspaldi du idazteko ohitura, nobela formatuan batez ere. “*Errealtate paraleloen kontuak beti eman dit atentzioa, Aliceren abenturak Lurrealde Miresgarrian eta horrelako ipuinek, eta zientzia-fikziozko kontaketen antologia baten parte hartzeko eman nuen izena. Kontaketa labur*

*bat idatzi nuen eta Vickyk irakurri zuenean ibilbide luzeagoa zuela esan zidan*”. Vickyren ustez oso kontaketa “*bisuala*” zen.

Bikoteak beti izan zuten estilo honetako zerbait sortzeko gogoia eta Dalilak idatzitakotik abiatu ziren. “*Argia ikusi ez zuen websail batean lanean genbiltzan eta guk geuk horrelako zerbait egiteko gai ikusi genuen gure burua*”, Dalilaren berbetan. Gehiago idazten hasi ziren, ideia asko jarri zituzten mahai gainean eta urte biko lana egin dute gidoia osatzen. “*Oso prozesu gogorra izan da*”, Dalilaren ustez. “*Oso perfektionistak gara, oso zorrotzak. Lehen kapitulua, adibidez, 10 aldiz idatzi dugu*”. Gaur egun, ordea, websaioa grabatzeko atarian daude.

### Grabaketa abuztuan

Ekainaren 28an aktoreak aukeratzeko castinga egin zuten eta zuzendarien deiak erantzun bikaina izan zuten. “*25 lagun baino gehiago etorri ziren, espero genuena baino askoz gehiago. Zaragoza eta Soriatik etorri ziren batzuk, pentsa. Aparta izan zen!*”, Dalilak dioenez. Eta zergatik hainbeste arrakasta? “*Istoria asko gustatzen zaielako etorri zirela esan ziguten*”.

Vicky eta Dalilak proiektuarekin izan zuten lehen kontaktu erreala izan zen castinga, etxetik atera eta errealtate bihurtzen hazteko unea, eta horrelako erantzun ona jasotzea “*gogobizialdia*” izan zen talde guztiarentzat. “*Proiektua martxan dagoela sentitu genuen, eta martxa onean gainera*”. Eta bilatzen zutena aurkitu zuten. “*Hori izan zen onena, bilatzen genuena baino gehiago eskaintzen diguten aktoreak aur-*

# VORÁGINE

## Webserie

kitu genituela. Poz-pozik gaude". Voraginerekin oso konprometituta dagoen jendea da eta dagoeneko websailaren zaleak dira. "Gidoiaren lehen irakurketa egin genuenean esan genien edozer gauza galde-tu ahal zutela pertsonaietan gehiago sakontzeko, baina eurek erantzun ziguten websailean aurrerago zer gertatzen den jakin nahi zutela", dio Dalilak barrez.

Astelehenean entseguekin hasi ziren, baina oraindik hainbat kontu itxi behar dituzte abuztuaren 12an grabaketekin hasiteko. "Hiru ekoizle ditugu taldean, baina gehiago lortzen baditugu ez litzateke txar-to egongo". Ikus-entzunezkoen munduan eskarmentua duten emakumeak dira biak. "Dalila gidoigintzan eta edizioan, eta ni zuzentzen eta kamera atzean batez ere. Beraz, ondo ulertzen dugu elkar", Vickyren berbetan, "baina horrelako proiektu bat gauzatzeko gauza gehiago behar dira".

Hainbat pertsonak egiten dute bat proiektuarekin Voraginek duen potentzial

handiak erakarrita. "Zorte handia dugu, hasieratik gurekin lanean diharduten 5-6 laguneko talde bikaina dugulako", Dalilak dioenez. Egun hauetan ekoizpen lanetan, soinu-banda sortzen, arte-zuzendaritzan eta beste hainbat alorre-tan lanean diharduen jendearekin bilduko dira, ahalik eta talde onena osatzeko. "Profesionalak dira eta argi dute aurrekonturik ez duen telesaila dela, baina ideiak motibatu egiten dielako etorri dira eta hori oso motibagarria da guretzat". Hala ere, proiektua finantzatu ahal izateko dirua lortzen badute, eurekin lan egiten dutenei ordaintzea da zuzendarien asmoa lehenik eta behin.

### Kaixo, Netflix?

Vicky eta Dalilak kontatu nahi duten istorioa ez da ohiko medioetan ikusten den horietakoa. "Gure ingurukoei eta guri bu-



Grabaketak abuztu erdialdean hasiko dituzte.

ruz berba egiten duen istorioa da", Vickyren esanetan, "ikusitako ohi ditugun lanetatik aldentzen dena". Ez dute nahi inork euren istorioa erosi eta moldatzea, "guretzat gidoia aldaezina da", eta horregatik erabaki zuten websail moduan kontatzea. "Netflixek dirua eman eta istorioa guk nahi dugun moduan kontatzen uzten badigu, bikain; baina ez da ohikoa horrelako zerbait gertatzea", Dalilaren ustez.

Websailen alorrean, bestetik, ohikotasunetik aldentzen da Voragine. "Gaur egunean umore kutsua duten websailak egiten dira batez ere, 10-15 minutuko komedia arinak", Vickyk dioenez, "baina guk buruan genuen proiektua gauzatu nahi genuen, nahiz eta normalean egiten denarekin zerikusirik ez izan". Printzipioz Voraginek 20 minutu inguruko 17 kapitulu izango ditu, lehen kapituluak izan ezik, 40 minutuko iraupena izango duelako.

Lehen kapituluak garrantzia handia du zuzendarientzat, ekoiztetxe edo ikus-entzunezkoen enpresa banatzaileetan produktua saltzeko aurkeztuko dutelako, baina auzen dien eskaintza bat jasotzen ez badute, YouTube edo Vimeo bezalako plataforma batean jarriko dute websaila eta kitto.

Vicky eta Dalila sartu dira Voragineren zurrunbiloan. Emaizta zuen ordenagailu, tablet edo mugikorretako pantailatan izango duzue laster.



25 lagunetik gora aurkeztu dira casting-era.



## MARIA ZULAIKA IRURETA

**I. URTEURRENA:** 2018-VII-25ean hil zen, 80 urte zituela

**"Urak dakarrena / urak daroa  
zuk emandakoa / gurekin gelditzen da"**

**ETXEKOAK**

Haren oroimenez **URTEURREN MEZA** izango da **abuztuaren 4an** (domeka), 11:00etan, Amañako parrokian



# + osasun gida

## Dentistak



**arat**  
Hertz Klinika

"Hertz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51  
info@clinicadentalarat.com  
www.clinicadentalarat.com  
Toribio Etxebarria 4 - 1. EIBAR

UniverSalud  
Mutua, konpainia eta kolektibo handien itundutako zentroa



**bista eder**  
clínica dental - hertz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19  
www.bistaeder.es

R.P.S. 123/17

Esku onetan egotearen ziurtasuna.  
20.000tik gora paziente pozik.  
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



**EIBAR** HORTZ KLINIKA  
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com  
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

**Pedro Etxebarria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17



**GASTESI**  
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



**hertz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

**EGUNERO**

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



**IRAZABAL**  
clínica dental

Iribarreetan adituak  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfnoa. 943 20 85 52  
www.clinicalrazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

**Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896**

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

**VITALDENT**  
*Konpromisoa*

San Juan, 7  
943 821 885 - 690 628 731  
www.vitaldent.com

## Dietetika/Nutrizioa



**NATUR HOUSE**

Ainara Iriando Ansola  
GIZA ELIKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22  
Mugikorra: 677 551 850

## Errehabilitazioa



**CRF AMOSTEGI**  
ERREHABILITAZIOA

- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Unitatea
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika klinika



**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

**MEDIKUNTZA**  
ESTETIKOA

**KIRURGIA**  
ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

## Fisioterapeutak



**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zkia.

- INIBATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- DRENAJE LINFATIKOAK
- POSTURA ZUZENKETEN TRATAMENDUAK

**ARRAQUETA, 20**  
TEL: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

## Ginekologia



**GINECOLOGÍA**  
**EIBAR**

Dra. Laura Martínez  
Dr. Alejandro Recas

Tel: 659 56 13 65  
San Juan, 5 - 2. D  
dr.recas@gmail.com  
dra.martinezgallardo@gmail.com  
www.ginecologiaeibar.com



## Logopedak

**AHOTS-LAN**  
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



**Isasi, 17 - 1. esk.**  
**943 202691**  
**ahotslan@gmail.com**

**Diagnostikoa eta tratamendua**

<b>Degluzio atipikoa</b>	<b>Arreta arazoak</b>
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

**Ana Artamendi**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)  
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

**Berba**  
logopedia

**AIDA CORTA ANTÓN**

**Ebaluazioa eta tratamendua:**

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

**SAN AGUSTIN, 2-4 (B. 2004)**  
Mobila: 622-629-544  
**logopeda@berba.es**

## Okulistikak

**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
**www.oftalberdi.com**

San Juan 11 - solairuartea  
943 20 19 82

**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinikoa

**• Presbiziaren kirurgia.**

R.P.S. 234/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
**www.clinicarecalde.com**

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOA**  
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
**943 12 14 93 / 696 555 208**

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika


**BIDEBARRIETA, 48**  
**EIBAR**  
943 203050

**ERDIKO KALE 54**  
**ARRASATE**  
943 799746

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

**PODOLOGOA**

**Maidier Lopez Etxebarria**



**Arragueta 2 Bis-B, Behea B**  
**Tfnoa. 943 82 04 88**

65 Kolegiatu zbkia.

**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

**Iñaki Rivero Zabaleta**

**Calbeton, 4 - 2.**  
**(Untzagako dorrea)**

**Tel. 943 20 86 41**

## Psikologoak

**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa  
**www.centreamets.com**

**Coro Ortíz de Urbina** - Master Praktika Klinikoa  
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua) - Master P.N.L.  
Tel. 675 70 68 07 - Trainer

**PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

**HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
**www.arratepsicoterapia.com**

**Lorena Izaguirre Garcia**  
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk. ....EIBAR  
Zuberoa, 4 .....ZARAUTZ  
Tel. 943 831 618

**Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa**

**Oscar Mondragon Lili**  
GOIZEZ ETA ARRATZALDEZ  
**Urkizu, 13 - behea**  
Tel. 943206823 eta 686859023

Tf. 686 85 73 22  
**moreno\_iciar@yahoo.es**

**Itziar Moreno**  
PSIKOLOGOA  
KOLEG. ZKIA. 1947

**GIZENTASUNA ANTSIETATEA AUTOESTIMA ARAZOAK**

943 12 02 00  
**URKIZU, 13 - 1.**

ORBEAKO DORREETAN

**centro médico eibar**

## Psikoterapia

R.P.S. 32/17

**FUB**  
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR

**FERNANDO URIZAR BARANDIARAN**

**Medikuntza Psikiatrikoa**

**Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)**  
615 71 54 04

**Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)**  
94 416 49 06

**furizar1@yahoo.com**

*marisa cid*

Pertsona bati zergatik ez diogu ematen animaliei ematen diegun gizatasuna? Zergatik zigortzen dugu sufritzera, hiltzen laguntzea errukiorra denean?

## Hiltzen lagundu ala ez?

**Hiltzen lagundu ala ez? Behin, halako erabaki bat hartu behar izan nuen eta denbora luzez lur jota ibili nintzen.** Hiltzen lagundu ala ez? Zeharo ausarta izan behar da galdera bera planteatzeko ere. Ez da edozein erabaki, galdera egitea ez da batere erraza eta are zailagoa da ihardespena.

Gure gizartean heriotza tabua da. Ez zaigu horretaz mintzatzea gustatzen. Bizitzaren unerik txarrenea izango balitz bezala hartzen dugu, baina, nire ustez, heriotza, kasu batzuetan, askapena da. Gaur egun "bizi-testamentua" guztiz legezkoa da eta, horri esker, edozeinek, bere buruaren jabe den bitartean, erabaki dezake zer-nolako balditzatan hil nahi duen.

Askotan, pelikuletan bakeroak ikusi izan ditugu bere zaldia tiroka hiltzen, sufritu ez dezan. Halako jokaerak arazorik gabe onartzen ditugu, baina pertsona bati zergatik ez diogu ematen animaliei ematen diegun gizatasuna? Zergatik zigortzen dugu sufri-

mendua jasatera? Zer dela eta ez dugu ikusten hiltzen laguntzea ekintza errukior gisa urteak baldin badaramatza ohean, gaixotasun sendaezina duela eta minak jasan ezinik?

Hasieran esan dut behin halako erabakia hartu behar izan nuela. Martxoko goiz bat zen, fresko samarra, baina eguzkia jaun eta jabe zen zeruan; nire barnean, berriz, negu gorria: bihotzean hodeiak, trumoiak eztarrian eta euria begietan. Gaua oso luze joan zen eta neka-neka eginda geunden biok. Autoa hartu genuen eta klinikarantz abiatu ginen. Han entzun nahi ez genuena entzun genuen. Guk biok bagenekien zer zetorren. Batzuentzat txakur bat besterik ez zinen; niretzat, nire txikia, nire lagun leiala, nire maitea. Ez dut pentsatu ere egin nahi zer izango litzatekeen halako egoera senide edo lagun batekin bizitzea, zeren eta hamabost urte pasa ondoren, zure azken begiradak, oraindik, hunkitzen nau.

*arantza alvarez*

Momentu horretan sentituko ditugun emozioak gure gidaliburu onena izango dira benetan desio dugun zerbait bizitzen ari garela jakiteko

## Sexualitate-betetasuna

**Sexuak ongizatea edo ondoeza sortu dezake.** Praktika sexual baten ostean satisfakzioa edo deserosotasuna sentitu dezakezu. Baliteke gure intuizioak nahi dugun egoera bat bizitzen ari garela edo, aldiz, baztertu eta geldiarazi behar dugun esperientzia dela adieraztea. Kanpoko presioa dela eta, batzuetan, desio ez dugun harreman sexual bat onartzen dugu.

Sexualitateari buruzko diskurtsoa kanpokoak eta kontrakoak diren jarrera biren artean mugitzen da, eta ez dute inola ere osotasun eta ongizate pertsonalera eramaten. Alde batetik, diskurtso tradizionala daukagu, debekuetan oinarritzen dena, eta erruduntasuna eta beldurra indartzen duena. Garapen pertsonalaren kontra doa. Bestalde, kontrakoa legoke: gure nahiak asetzeagatik denak balio duela esaten duen jarrera. Berehalako plazera bultzatzen da, ondorioak baloratu gabe, beste pertsonarekiko errespetua eduki gabe ere.

Argi dago beldurrekin eta tabuekin ez dela sexualitate-betetasuna lortzen, ezta esperientzia sexual anitzetan murgilduz ere, benetan aberasgarriak diren ala ez aztertu gabe. Arlo horretan zer nahi dugun pentsatu beharra daukagu. Ongizatea sentitzeko zer behar dugun deskubritu eta horren arabera jokatu.

Sexualitate-betetasuna konfiantzazko eta errespetuzko inguru batean lortzen da, bikote-harreman baten barruan edo kanpoan. Amodioa eta Sexua ez doaz beti elkarrekin, baina Sexua eta Errespetua bai. Errespetua norberarekiko eta momentu horretan gurekin erotikoki erlazionatzen den beste pertsonarekiko. Ezin da inor behartu momentu horretan egin nahi ez duen zerbait egitera, norberaren desioa asetzeko. Inork ezin gaitu behartu egin nahi ez duguna egitera. Ez gara inoren jostailu sexuala. Ez beti da ez.

Esploratzeko eta deskubritzeko bide erotiko berriak baldin badaude, apurka egin behar dugun zerbait da, norberak nahi duela eta ez kanpoko presioengatik. Lotsarik gabe ausartu behar gara gustatzen zaiguna adierazten. Eta hortik aurrera, konfiantzazko inguru batean, soltatu eta gure esperientziak bizi, hori baldin bada nahi duguna.

Momentu horretan sentituko ditugun emozioak gure gidaliburu onena izango dira benetan desio dugun zerbait bizitzen ari garela jakiteko.

**Irakurtzeko:** "Respeto. El sexo consentido"

Egilea: Inti Chávez Pérez. *Guía de sexualidad masculina para jóvenes.*

## Eskubaloiko XX. Superkopa hartuko du Eibarrek abuztuaren 31n

Super Amara Bera Bera eta Rocasaren arteko norgehiagoka jokatu da Ipurua kiroldegian abuztuaren azken egunean, 18:30ean hasita eta Teledortek zuzenean eskainiko duena. Guerreras Iberdrola Ligako eta Kopako txapelduen artekoak erabakiko du XX. Superkoparen irabazlea, Eibar Eskubaloia taldeak antolatutako partiduekin; horretarako, gure herriko eskubalo klubak SD Eibar Fundazioa izango du lagun eta Eibarko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundi-kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kiroletako Sailaren babesa. Partiduekin batera, Espainiako Eskubalo Federazio-k Gala ere hartuko du Eibarrek: ekitaldi horretan azken denboraldiko jokalaria, zazpiko, defendatzaile, entrenatzaile eta epaile onenak sarituko di-



tuzte, golegile nagusia eta etorkizuneko jokalariekin batera. Donostiako Bera Berak orain arteko edizio guztietako erdiak jokatu ditu, hau da, hamar aldiz, eta euretako zazpi irabazi ditu. Rocasaren aurka jokatu duen laugarrena izango da abuztuaren 31koa eta

aurreko hiruretan gipuzkoarrak nagusitu ziren (2013, 14 eta 15ean).

Talde biek asko aldatu dituzte plantillak denboraldi berriari begira eta euretako jokalaria askok Eibarren izango dute debut ofiziala. Super Amarak Eli Cesareo eta Manuela Pizzo in-

ternazionalak, Mariane Fernandes brasildarra eta Emma Boada eta Maria Prieto O'Mullony fitxatu ditu, Ermuko Mirene Moreno hegalekoarekin batera. Rocasa Gran Canariak, bestalde, iazko zazpiko onenean dagoen Paula Valdivia, Alba Spugnini eta Palomino atezaina fitxatu ditu, Tanaskovic serbiarra eta Gutkowska poloniarrekin batera.

Gaizka Bilbao Eibar Eskubaloiko presidentearen hitzetan, "horrelako ikuskizun ederra harteak herrian eskubaloia sustatzeko aukera ezinhobea da, iazko talde onenen eta denboraldi berrirako faboritoen aurrean gaudelako". Bilbaok dioenez, "Eibarrek tradizio handia du eskubalo munduan eta, horrez gain, harrobia lantzen jarraitzen dugu eta kluba hazten doa".



## Ane Ziaranek debut polita egiten dihardu Zumaiaiko traineruarekin

Debuteko urtea du estropadetan Ane Ziaranek eta hasiera bikaina izaten dihardu Telmo Deun traineruarekin. Zumaiaiko taldeak Portugaleteko estropada irabazi zuen azken asteburuan eta ETE ligako lidergoan kokatu da. Zumaia hirugarren txandan hartu zuen parte Hibaika, Kaiku eta Tolosaldearekin batera, eta bost segundoko aldea atera zion bigarrenari.

Hiru urtez estropadetatik kanpo egon ondoren, indartsu itzuli

da Telmo Deun trainerua, bere historia handiari jarraipena emateko asmoz (Kontxako bandera irabazi zuen 2013an, Euskotren liga 2012an eta 2013an, eta Gipuzkoako liga 2012an, 2013an eta 2015ean).

Ane Ziaran triatloian lehiatu izan da urte askoan eta estropadetara eman du jauzia aurrean. Hala ere, ez da ETE ligan parte hartzen duen Ziaran bakarra, Nerea berea ahizpa Lekeitioko taldeko (Isuntza) kidea baita.

## Mikel Zabala eibartarra junior mailako munduko txapelketan

Irungo Bidasoarekin egindako denboraldi bikaina borobiltzeko Eibarko hegalekoak Espainiako selekzioarekin hartzen du parte Vigon eta Pontevedran jokatzeko diharduten junior mailako Munduko Txapelketan. Martitzenean Estatu Batuei 34-13 irabazi eta gero, Tunisia (atzo), Serbia (gaur 21:00etan), Japonia (domekan 21:00etan) eta Eslovenia (astelehenean 21:00etan) ditu aurkari lehen fasean Zabalaren taldeak. Estatu Batuetako taldearen aurka oso nagusi izan zen Espainia eta eibartarrak minutu gutxi batzuk baino ez zituen jokatu; hala ere, izan zuen denbora golik sartzeko.



Mikel Zabala jaurtiketa egiten Espainiako selekzioarekin aurretik jotatutako beste neurketa batean.



## Bi domina herriko atletentzat Euskadiko txapelketan

Aurreko asteburuan Euskadiko Txapelketa izan zen jokoan Durangon eta Eibarko Klub Deportiboko atletak bi dominarekin bueltatu ziren, biak ere xabalina-jaurtiketan lortutakoak: Odei Jainagak, oraindik minarekin jarraitzen badu ere, urrezkoa irabazi zuen 72,80 metroko jaurtiketarekin, eta Garoa Magunazelaiak brontzekoa bereganatu zuen, 34,25 metroekin. Podiumera igo barik ere, Eibarko ordezkariak beste hainbat goiko postu lortu zituzten: Jainaga, esaterako, bosgarren izan zen disko-jaurtiketan, eta Nora Zabala laugarren postuaz jabetu zen jauzi hirukoitzean. Luzera-jauzian, bestalde, Julen Teran 9. izan zen eta Carlituo Mendy 11. postuan sailkatu zen.



## Eibar Igerixan-ekoen emaitza bikainak Euskal Herriko Udako txapelketetan

Aurreko asteburuan Gasteizko Mendizorrotza igerilekuetan jokaturako absolutu eta junior mailetako Euskal Herriko txapelketetan Eibar Igerixanek lau ordezkari izan zituen: Ruben Torres absolutuetan eta Jon Osa, Roke Etxeberria eta Eleone Oiarzabal juniorretan. Osa A finalera heldu zen parte hartutako lau probatan, lau zilar eta urrezko eta brontzeko do-

mina bana eskuratuz; eta Oiarzabalek 2. postua lortu zuen B finaletako 100 bizkarrean. Eibar Igerixanek beste hiru hitzordu dituzte, hirurak ere Espainiko txapelketetakoak: asteburu honetan alebin mailakoa Tarragonan, hurrengokoa infantil mailakoa eta abuztuko lehen asteburuan junior eta absolutu mailakoa, azken bi horiek Bartzelonan.

## Deporreko mendizaleek Artzaintza Naturbidearen laugarren etapa egin zuten

Hogei lagunek taldeak burutu zuten aurreko asteburuan Artzaintza Naturbidearen etapa hori, Oteotik irten eta Agurainen amaitu zen txangoan. "Eguraldi paregabea izan genuen 24 kilometroko ibilbidean" diote parte hartu zutenek. Bi tontor igo zituzten, Santa Teodosia eta Arrigorrista, azken hori 1.153 metrokoa. Deporreko mendi-batzordeak antolatutako hurrengo irteera Pirinioetako ibilaldia izango da, Araneko Itzuliaren lehenengo zatiren barruan Beret-etik Les-era eramango dizkien laugarren etaparekin. Irteera hori lau eguneko izango da, hilaren 25etik 28ra, eta Tuc de Marimanha (2.679 metro), Pic de Mauberme (2.881) eta Tuc dera Serra Nauta (2.714) gainak egingo dituzte.



## Amaiur Mayok Espainiako selekzioarekin jokatu du Errusian

Eibar Rugby Taldeko jokalaria Moscun izango da hilaren 27an eta 28an errugbi-plaia modalitatean jokatu den txapelketan. Espainiako selekzioa torneo horretara deitzen duten lehenengo aldia da, baina Mayok aurretik ere jokatu du Espainiarekin. Hori bai, taldea bost jokalarirekin osatzen den modalitate berri honetan estreinaldia izango du, "bost minututako bi zatitan banatutako partidua jokatzeko". Hautatzaileek hamabi jokalaria deitu dituzte guztira Errusiar joateko. Bestalde, Aleu Cid ere Espainiako 18 urtetik beherako selekzioaren kontzentrazioan izan da domekatik gaur arte, "olinpiadetako modalitatean jarduteko".



## Miren Urizar eibartarra Europako txapeldun waterpoloan Espainiako selekzioarekin

Urbat-Urkotronik waterpolo taldeko jokalaria urrats handia eman zuen Espainiako selekzioarekin Europako txapelketa batean parte hartzen Euskal Herriko lehena izanik. Ba orain txiki laga du lorpen hori, taldearekin Europako txapela jantzi du-eta. Errusiako Kirishi herrian jokaturako kadete mailako lehiaketa horretan Urizar eta taldekideak penaltietan nagusitu ziren Errusiaren aurka jokaturako finalean. Azken emaitza 13-14 izan zen, partida azken segundora arte oso parekatuta egon zen seinale. Partiduko azken minutuan, presezki, lortu zuen Espainiak 10nako berdinketa, gero penaltietara eramango zuena.

Aurretik, azken laurden horretan, Errusiak partiduko abantaila handiena eskuratu zuen, 10-8 aurreratuta. Aurretik, dena dela, ez zuten bide erraza izan Urizarrek eta taldekideek: lehen fasean euren multzoko onenak izan ziren espainiarrak, Serbia eta Israeli aurrea hartuz. Final-laurdenetan ondo irabazi zioten Italiari (16-11) eta finalerdietan lehia gogorra izan zuten Herbeheretako selekzioarekin, azkenean 14-13 irabazteko. Elena Ruiz Urizarren taldekidea aukeratu zuten torneooko jokalaria onena eta Mariona Terre taldekidea atezain onena. Espainiako selekzioa munduko indartzueneren artean dago egun: txapelketa honi izaz



Miren Urizar eibartarra argazkiaren erdian, irabazitako Kopa eskuan duela. Eibartarrak berari dagokion baino maila handiagoan jokatu ere, selekzioaren lorpenean parte hartu zuen gauzatutako hainbat golekin.

lortutako jubenil mailako munduko eta junior mailako Europakoa gehitu behar zaizkio, 2017an maila absolutuan munduko azpitxapeldun izateaz gainera. Miren Urizar, bere aldeetik, Bartzelonan dagoen Erren-

dimendu Handiko Zentrora joango da Espainiako kadete mailako konbinatuak martxoan deituta eta han Davide Cerchi Urbateko entrenatzailea izango du lagun. Etorkizun handia du eibartarrak!

## Sei fitxaketa egin ditu Eibar FT-ko talde nagusiak Ruben Peña eta Jordanen bajei aurre egiteko

Azken denboraldian 1. mailako Eibar FT-ko hamaikakoa funtsezkoak izan diren bi jokalarik, Joan Jordan eta Ruben Peña, Ipuruako taldea laga eta Sevillara eta Vilarrealera joan dira, Eibarko taldearen poltsikoetan diru kopuru polita lagata. Diru horretako zati bat Amaia Gorostiza buru duen zuzendaritzak A Coruña-ko Deportivo bi jokalarik erosteko erabili du; horrela hartu dute lurra gurean Exposito erdilarik eta Quique Gonzalez aurrelariak. Aurretik beste lau fitxaketa egin zituen Eibarko taldeak:

atzeko eskumako hegala zaintzera etorri dira Real Madrileko Tejero eta Cadizeko Correa, zentral posturako Esteban Burgos etorri da Alcorconetik, eta Atletico de Madrid taldeko Olabe erdilarik euskalduna (Realeko zuzendari teknikoaren semea). Iaz Eibarren lagata jardundako Las Palmaseko Pedro Bigasek Mendilibarren taldearekin jarraituko du. Taldea laga dute, bestalde, lehen aipaturako birekin batera Cucurellak (Bartzelona), Cardonak (Osasuna), Pere Millak (Elx), Elgezabalek (Alcorcon) eta Ira-

zabalek (Mirandes), Manchester Cityra joatekotan den Asier Riesgorekin batera.

### Aurrendenboraldia bi garaipenekin hasi dute

Bigarren B mailako aurkari birekin hasi dute denboraldia eibartarrak, azken urteotako bidetik jo eta ondoren Austrian egin beharreko egonaldian prestaketa gogortzen joateko. Astelehenean Leioari 0-2 irabazi zioten Sarrienan, Kike Garcia eta Pedro Leonen golekin, eta atzo Amorebieta garaitu zuten Urritxan 1-3, De Blas, Pedro Leon eta Asier Benitoren golekin. Laugarren urteaz jarraian Tiroleko Kosse herrian kontzentratuko dira eibartarrak datorren astean eta egun horietan lau partidurak lotu dituzte dagoeneko, guztiak aurkari zailenen kontra: uztailaren 20an Bayer Leverkusen izango dute aurrean (18:00etan), hilaren 27an Besiktas



Aurrendenboraldiko lehen bi partiduetan bigarren jantzia erabili du taldeak.

turkiarra (17:00etan), 28an Werder Bremen (11:00etan, Bavierako Grassaun) eta abuztuaren 3an Fortuna Dusseldorf (15:00etan). Handik bueltan eta liga hasi aurretik, Mendilibarren mutilek Osasunaren aurka neurtuko dituzte indarrak abuztuaren 8an (19:30etan, Tafallako San Francisco), eta bi egun geroago, hilaren 10ean, Realaren kontra (20:30etan). 1. Mailan seigarren denboraldia osatuko duen Eibarko taldeak, bestalde, fair play edo kiroltasun saria bereganatu du azken urtean.

Lau milioi euro ordaindu eta Cucurella berreskuratu du Bartzelonan.



M I L A E S K E R  
C U C U R E L L A





**RAY MUÑOZ.** "Artea plazan".

Aurreko astean amaitu ziren Udako Euskal Unibertsitatearen 47. Udako Ikastaroak. Aurten ere gai eta edukiei begira eskaintza zabala egin dute antolatzaileek eta, ikastaroak amaitu berri diren honetan, Irati Iciar Madinabeitia ikastaroetako arduradunak aurtengoaren balorazioa egin du.



**IRATI ICIAR:**

## “Maitasuna politikoa den moduan, UEUren kasuan elkarlana politikoa da”

**- Zein da aurtengo Udako Ikastaroen inguruan egiten duzuen balorazioa?**

47. Udako Ikastaroak izan dira aurtengoak eta honetan ere balorazio positiboa egiten dugu. Alde batetik eskaintza bera egitea lortu dugulako. Lehenengo erronka hori delako. 30 ikastaro antolatu, 6 jardunaldi sartu. Guztiak ere gaiengatik interesgarriak direlako, antolatzaileengatik, edo ikastaro edo jarduera horren atzean dagoen elkarlanagatik ere interesgarria delako. Alde batetik eskaintza egitea lortu dugu eta hori da gure urteroko erronka. Eskaintza berria eta interesgarria antolatzeari. Eta, horrekin batera, jendearen erantzunari ere begiratzen diogu. Guk eskaintza hori egiten dugu norbaitentzat interesgarria, beharrezkoa eta hutsune bat betetzeko baliogarria izateko asmoz. Horretan ere emaitza ona izan da. Egia da bidean ikastaro batzuk ez direla irten edo ez dutela eduki guk espero genuen parte hartzea. Baina talde politikak sortu dira, tamaina ezberdinetakoak. Arrakasta beti ez da jende asko biltzea, baizik eta jende egokia biltzea. Orduan positiboa izan da parte hartzearen aldetik eta oso positiboa elkarla-

naren aldetik. ElkarEkin leloa ez da kasualitatea eta nik uste dut Udako Ikastaroak direla bereziki UEUren barne elkarrekintza horren eremu naturala izan daiteke. Hasi akademikoki ikastaroak antolatzetik, baita azpiegiturak lortzeko orduan ere, Usurbilen, edo Lizeoa Baionan edo Ezpeleta jauregia Iruñean. Markeskua bera ere elkarlan batetik sortutakoa da. Udako Ikastaroetan egia da gorpuztu egiten dela eta benetan ikusgarri bihurtzen dela. Maitasuna politikoa den moduan UEUren kasuan elkarlana politikoa da.

**- Urtetik urtera hazten doan elkarlana da, gainera...**

Bai, egia da. Gainera, guk ere sustatu egiten dugu. Alde batetik datozen proposamenen artean ere baloratzen dugu nork proposatzen digun edo norekin edo zein elkarlan proposatzen diguten. Eta beste alde batetik sustatzen dugun lekua da. Udako Ikastaroek ere malgutasun hori ematen digutelako. Urte osoko eskaintzak baditu beste ezaugarri batzuk, beste hartzaile batzuk eta beste tempus batzuk. Eta Udako Ikastaroak gure gureak dira. Gure neurritan, guk nahi dugun mo-

duan antolatzen ditugu. Guk nahi dugunean hasten dira, guk nahi dugunean amaitzen dira. Guk jartzen diogu kolorea, guk jartzen diogu elkarlana.

**- Zein paper betetzen dute gaur egun Udako Ikastaroak?**

UEUren barruan Udako Ikastaroen papera gure nortasunari jarraipena ematea dela uste dut. Egia da Udako Ikastaroak UEUrekin batera eta gizartearekin batera asko aldatzen joan direla. Eboluzio bat izan dute. Eta bai da hori, eguneko munduarekin kontaktua mantentzen laguntzen digun jarduera da. Aldi berean, gure jarduera ezagunena da, UEUrekin ere nortasuna ematen diona kanpora begira. Bestetik ematen digu praktika bat barrura begira egiteko: gure sailekin, bazkideekin... Baina praktika hori eta nortasun hori kanpora begira ere islatzen da medioen bitartez, partaideen bitartez, sare sozialen bitartez... Hiru aste intentsoak dira. Nik uste dut UEUrentzat erakusleihu oso garrantzitsuak direla gaur egun oraindik. Eta elkarlanerako datozen eragile ezberdinek ere horrela ulertzen dute. Datozela UEUrekin zerbait egitera.

## “Idazlearekin Harixa Emoten” irakurle talderako izen-ematea

Juan San Martin udal liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak elkarlanean antolatzen duten “Idazlearekin Harixa Emoten” euskerazko irakurketa klubean parte hartu nahi dutenentzat izen-ematea astelehenean zabalduko dute eta, interesa dutenek, Liburutegian edo internet bidez (eibar.eus helbidean esku-ragarri dagoen eskaera-orria bete eta emailaz bidalita) izango dute izena emateko aukera, irailaren 6ra arte. Jarduera dohainik da. Idazleak bere liburua irakurri duten irakurleei haren gaineko ideiak, esperientziak eta bizipenak elkartrukatzeko aukera eskaintzeko asmoz hilean behin (martitzenetan, 19:00etan) Portalean egiten diren saioetan idazleek parte hartzen dute eta, antolatzaileek aurreratu dute-



nez, datorren ikasturtean ere Antxon Narbaizaren laguntza izango dute, “liburuari mamia ateratzeko”. Ikasturteko lehen ira-

kurketa Miren Amurizaren “Basa” izango da eta horren inguruko solasaldia irailaren 24an egingo dute.



## Bisita gidatuak eta umeendako tailerrak Untzagako erakusketan

Hilaren 28ra arte egongo da Untzagan “Pradoko Museoa kaleetan”, Madrilgo Museoan ikus daitezkeen lanik esanguratsuenak biltzen dituen erakusketa eta, horren harira, bisita gidatuak eta haurrentako tailerrak antolatuta dituzte, dohainik. Bisita gidatuak astelehen, barixaku, zapatu eta domeketan (19:30ean eta 20:30ean) eta martitzen, eguazten eta eguenetan (20:30ean) izango dira. Umeendako “Las Meninas-Sorolla” tailerrak, berriz, martitzen eta eguenetan egingo dira, 19:00etatik 20:15era. Eta “Pradoko Museoa kaleetan” umeendako gymkana eguaztenetan izango da, 19:00etan. Jarduera guztietarako izen-ematea Untzagan bertan egingo da, jarduera hasi baino 15 minutu aurretik.

## Arrateko Bertso Afariko sarrerak astelehenean jarriko dira salgai ohiko tabernetan

Irailaren 7an, Arrate egunaren bezperan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta urtero egiten den bertso afarirako sarrerak ohiko lekuetan, Kultu, Sagar Bitza eta Kantabriar jarriko dituzte salgai astelehenetik aurrera, 33 eurotan. Bakarrik bazkideentzat egin den aurreramentu amaituta, datorren astetik aurrera edozeinek izango du txartela erosteko aukera, inolako muga barik. Kantabria jatetxean 21:00etan hasiko den afarian bertsoetan jardungo duen laukotea Oihana Iguaran, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio eta Andoni Egañak osatzen dute eta gai-jartzailea Jon Mikel Mujika izango da.

## Musika eta menu berezia Hirurok-en 6 urteak ospatzeko

Gaur ospatuko dute Hirurok taberna zabaldu zutela sei urte betetzen direla eta, urteurrena dela eta, arratsaldeko 20:30etik aurrera kontzertua emanango dute Andrea&Sofiak. Gainera, nahi duenak urteurrenaren harira tabernan eskainiko duten fusio afari bereziarekin (Gyozak, bao otartekoak eta kesadillak) gozatzeko aukera izango du.

**hirurok**



**6. Urteurrena**  
 KONTZERTUA  
 Andrea&Sofia

+  
 Fusio Afaria  
 (Gyozak, bao otartekoak eta kesadillak)





## Munduko beste haur batzuekin batera jardungo dute Kezka taldekoek Ezpeletan

Munduko musika eta dantzariak batzen dituen Gauargi jaialdian parte hartzen dihardute Kezka dantza taldekoek. Aste honetan, eguaztenez hasi eta datorren martitzenean amaituko den jaialdian munduko haurrak eta dantzak izango dira protagonista. Aurtengo edizioan, Palestina, Argentina, Bolivia, Txetxenia eta Ukrainatik etorritako dantza taldeak arituko dira Lapurdiko Ezpeleta (hemen egingo dira ekintza gehienak), Basusarri, Senpere, Donapaleu, Ainhoa, Larresoro, Zuraide eta Biarritz herrietan.



## Udako arratsaldeak girotzeko jarduerak El Corte Inglesean

El Corte Ingleseko terraza girotzeko antolatu duten egitarauaren barruan, umeendako puzgarriak ipiniko dituzte gaur arratsaldean, 17:30etik 19:30era. Eta uztailaren 26rako, berriz, Sofia eta Ander bikotearekin zuzeneko musika emanaldia antolatu dute, 19:00etatik aurrera. Jarduera guztiak dohainik dira (euria egingo balu, beste egun batean egingo dira).



## Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak geltokia izango du Eibarren

Irailaren 14an hasiko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa Oñatin eta, handik hiru hilabetera, abenduaren 14an jokatu da finala Donostiako Illunben. Hamasei saio izango dira tarte horretan: zazpi final-zortziren, bost final-laurden, hiru finalaurreko eta finala. Urriaren 26ko final-laurdenetakoa Eibarren jokatu da. 48 bertsolarik parte hartuko dute, eta horietako 34 udaberrian jokatu den Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasetik heldu dira; Jokin Bergara eibartarra da euretako bat. Saio guztietarako sarrerak irailaren 2tik aurrera jarriko dituzte salgai, [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) webgunean.

## Andra Mari jaiak Azitainen

Abuztuaren 15ean ospatuko dituzte Andra Mari jaiak Azitainen, egunerako antolatu duten egitarauari jarraituz. Prestatu dituztenen artean, besteak beste, musika, gastronomia eta kirol jarduerak daude.



## Argazki-erakusketak tabernetan

Klub Deportiboko argazkilarien eskutik, uztailaren 31ra arte hiru argazki-erakusketak ikusteko aukera izango da beste horrenbeste tabernetan: El Ambigú eta Portalea tabernetan Angel van Beek, Cristina Merino, David M. Cid, Jordi Targarona, Joshua Miro, Jesus Herrero, Lola Ibañez, Marta Aljama eta Pau Miquel argazkilarien lanak ikus daitezke eta Deportibo tabernan, berriz, "Cuatro miradas en la Selva de Irati" izenburuko erakusketak dago zabalik, Cristina Serra, Narziso Vicente, Carlos Seisdedos eta Joan Mimo argazkilarien lanekin.

Aurten ere udako zine-emanaldiak antolatu ditu Udaleko Kultura sailak abuzturako. Eguen gauetan izango dira proiektzioak, Untzagan, 22:00etan hasita eta dohainik. Harmailen aldean emango dituzte filmak eta, horretarako, pantaila-puzgarri handi bat erabiliko dute proiektzioekin arduratuko diren Bizkaiko Servifilms enpresako teknikariek. Eta, euria eginez gero, emanaldiak lehen egiten ziren bezala, udaletxeko arkupeetan izango dira.

Uda honetarako egitarauaren barruan lau film, horietako bi euskeraz ikusteko aukera izango da. Lehen proiektzioa abuztuaren 8koa izango da eta, udako zine karteldegia zabaltzeko aukeratu duten filma, berriz, Telmo Esnalek zuzendutako **"Dantza"**. Iaz, irailaren 24an Donostiako 66. Zinemaldiko sekzio ofizialean aurre-estreinatu zen eta hasieratik oso harrera ona izan zuen lanak. Gabonetako arrakastetako bat izan zen eta, lehen hamar asteetan, filma eman zuten 56 herritan 40.000 ikusletik gora batzea lortu zuen. Kontatzen duen istorioa Juan Antonio Urbeltzek euskal dantzarekin landutako mundu sinbolikoan oinarritzen da eta filmak euskal gizartearen ohituren argazkia egiten du, dantza tradizionalaren bitartez. Argia dantzari taldearen gidaritzapean, hainbat taldetako dantzariak hartzen dute parte pelikulan, besteak beste Eibarko Kezka taldekoak. Antzezleak, berriz, Joseba Astarbe, Amaia Irigoyen, Gari Otamendi, Josu Garate eta Ainara Ranera dira.

Euskerazko bigarren filma hurrengo astean, abuztuaren 15ean emango dute: **"Harpetarra"** (Erresuma Batua, 2018), Nick Park zuzendariaren animazio-lana. Marrazki bizidunen bitartez kontatzen duen istorioa dinosauroak eta mamut iletsuak lasai bizi zireneko garaian kokatzen da: Dug harpetarrek, bere lagun mina Hognob basurdeare-

# Izarrez betetako filmak udako gauak argiztatzeko



**Abuztuaren 8an**


**"Dantza"**

98 minutu / Euskaraz  
 Zuzendaria: Telmo Esnal

**Abuztuaren 15ean**

**"Harpetarra"**

89 minutu / Animazioa, euskaraz  
 Zuzendaria: Nick Park



**Abuztuaren 22an**

**"Bohemian Rhapsody"**

134 minutu  
 Zuzendaria: Bryan Singer

**Abuztuaren 29an**

**"Campeones"**

124 minutu  
 Zuzendaria: Javier Fesser



kin batera, Harri Aroko eta Brontze Aroko zibilizazioen arteko lehian hartuko du parte eta, horrekin batera, bidean aurkitzen joango den arriskuz betetako hamaika egoera eta abenturari aurre egin beharko die.

Iaz zinema areto eta jaialdietan arrakasta izugarria eskuratu zuen **"Bohemian Rhapsody"** (Erresuma Batua, 2018), berriz, abuztuaren 22an proiektatuko dute. Queen taldearen, bere musikaren eta Freddie Mercury abeslariaren ospakizuna da filma. Pelikulak taldeak lortu zuen arrakasta itzela erakusten du, baina hortik haratago, horren onak izan ez ziren beste sasoi batzuk ere azaltzen dira, Mercury taldea laga eta barkarkako ibilbideari ekin zioneko, adibidez.

Eta aurtengo emanaldiak agurtzeko beste film arrakastatsu bat, Javier Fesser zuzendariaren **"Campeones"** aukeratu dute. Kontatzen duen istorioan, Marcek ez du bere momenturik onena bizi: saskibaloia entrenatzailea da eta, arazo pertsonal eta profesionalak tartean, lur jota dago. Hori gutxi balitz, Ligako partidu batean beste entrenatzaile batekin borroka egiten du, lana galtzen du, mozkortu egiten da eta, ondorioz, trafiko istripu bat dauka. Zigor modura, desgaitasun mentala daukatenak entrenatzera bidaltzen dute eta berehala konturatuko da taldea osatzen dutenenengandik asko daukala ikasteko.



**MARITXU DEL BARRIO AGIRREBEÑA**

2019ko uztailaren 13an hil zen

*Zuk emandako maitasuna  
 gurekin dago*

Maite zaitugu, Amama





### Oporretan jaixak nonahi eta noiznahi inguruan

UZTAILLIAN.-

**22xan, Malenak:** Mutrikun eta Durangon

**25ian, Santixauak:** Ermuan, Soroluzen, Mendaron, Goimendin eta Etxebarrian

**26xan, Santanak:** Mendaron, Soroluzen eta Arrasaten

**31n, Saniñaziuak:** Azpeitian, Antzuolan, Lekeitixon, Elorrixon eta Garain



ABUZTUAN.-

**5ian, Kopraixak:** Itziarren

**6xan, San Salbadorrak:** Eibarko auzuan

**10ian, Sallobentiak:** Ermuko eta Elgoibarko auzuetan

**12xan:** Euskal Jaixa Zumaian

**15ian, Andramaixak:** Eibarko Azittaiñen, Elgetan, Soroluzen, Mallabixan, Ondarrun,

Azkoitian eta Aretxabaletan

**16xan, Sanrokiak:** Deban, Elgoibarko auzuan eta Mallabixan

**20xan:** Kuadrilla Eguna Zumaian

**24an, Sanbartolomiak:** Elgoibarren

**31n, San Ramon Nonato:** Mallabixan

IRAILLIAN.-

**1ian, Sanantoliñak:** Lekeitixon

**14an, Kalbaixuak:** Mutrikuko auzuan

### eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

### hildakoak

- Javier Aranzeta Txopitea. 82 urte. 2019-VII-8.
- Felicitas Etxeberria Elorza. 91 urte. 2019-VII-11.
- Felix Iriondo Salaberria. 58 urte. 2019-VII-11.
- Maritxu del Barrio Agirrebeña. 97 urte. 2019-VII-13.
- Ignacio Iparragirre Adrian. 61 urte. 2019-VII-15.
- M<sup>a</sup> Jose Bolunburu Alberdi. 65 urte. 2019-VII-17.

### jaiotakoak

- Jimena Valdes Jimenez. 2019-VII-1.
- Ekhi Arriola Oregi. 2019-VII-8.
- Hodei Sanchez Taboada. 2019-VII-11.

### Erakusketak

**Uztailaren 19ra arte:**

- "EIBARKO INDUSTRIA-SAREAREN BERRERAIKUNTZA 1938-1942" (Eibarko Armagintza Museoa)

**Uztailaren 28ra arte:**

- "PRADOKO MUSEOA KALEETAN" (Untzaga)

**Uztailaren 31ra arte:**

- ANGEL VAN BEEK, CRISTINA MERINO, DAVID M. CID, JORDI TARGARONA, JOSHUA MIRO, JESUS HERRERO, LOLA IBAÑEZ, MARTA ALJAMA ETA PAUL MIQUEL-EN ARGAZKIAK (El Ambigú eta Portalea tabernak)

- "CUATRO MIRADAS EN LA SELVA DE IRATI", CRISTINA SERRA, NARCISO VICENTE, CARLOS SEISDEDOS ETA JOAN MIMO ARGAZKIEKIN (Deportibo taberna)

### SUDOKUA

AURREKOAREN  
EMAITZA

1	7	4	9	8	5	3	2	6
3	9	2	6	4	7	8	1	5
6	5	8	1	3	2	9	4	7
9	4	3	5	2	1	7	6	8
5	2	6	8	7	4	1	9	3
7	8	1	3	9	6	4	5	2
4	6	9	7	5	3	2	8	1
2	3	5	4	1	8	6	7	9
8	1	7	2	6	9	5	3	4

5	3					9	8
9	1			3		7	
			5				3
					6		5
1		8				2	4
	5		2				
6				5			
		5		9			8 7
7	4					6	2

### telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Andretxea.....	943 70 08 28
Epategia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	900 17 11 71
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Eibar Ospitalea.....	943 03 29 00
Mendaro ospitala.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	944 33 33 33
Lurraldebus.....	900 30 03 40
Pesa.....	900 12 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...	699 37 75 20

## UDAKO ORDUTEGIAK

### PEGORA

**010 / 943 708 400** [pegora@eibar.eus](mailto:pegora@eibar.eus)

– Astelehenetik barixakura: 08:30-13:30  
 (telefonoz, 08:00-14:00)

### PORTALEA

**943 708 439** [kultura@eibar.eus](mailto:kultura@eibar.eus)

– Uztailan, astelehenetik barixakura: 09:00-20:30  
 – Abuztuan, astelehenetik barixakura: 09:00-13:30

### LIBURUTEGIA

**943 708 437** [liburutegia@eibar.eus](mailto:liburutegia@eibar.eus)

– Uztailan, astelehenetik barixakura:  
 09:00-13:30 eta 16:30-19:30  
 – Abuztuan, astelehenetik barixakura: 09:00-13:30  
 (hilaren 5etik 14ra, gela polibalentea bakarrik)

### MUSEOA

**943 708 446** [museoa@eibar.eus](mailto:museoa@eibar.eus)

– Uztailan, martitzenetik barixakura: 16:00-20:00  
 – Abuztuan, martitzenetik barixakura: 10:00-13:30

### IPURUA KIROLDEGIA

– Abuztuan, astelehenetik zapatara:  
 09:00-13:00 eta 16:00-20:00  
 – Domeka eta jaiegunetan: 09:00-13:00  
 – Abuztuaren 12tik 25era itxita, biak barne  
 – Abuztu osoan, igerileku estalia itxita egongo da  
 – Kanpoko igerilekua: 10:30-20:30 (uztailan)  
 10:30-20:00 (abuztuaren 1etik irailaren 8ra arte)

### UNBE KIROLGUNEA

– Uztailaren 25etik abuztuaren 11ra, egun biak barne, itxita  
 – Abuztuaren 12tik 31ra, astelehenetik zapatara:  
 10:00-20:00  
 – Domeka eta jaiegunetan: 09:00-14:00

### ORBEA KIROLDEGIA

– Uztailaren 26tik 31ra, egun biak barne,  
 igerilekua itxita egongo da  
 – Abuztuan, astelehenetik barixakura:  
 09:00-13:00 eta 16:00-19:00  
 – Zapatuetan: 09:00-13:00  
 – Domeka eta jaiegunetan, itxita

### ORBEA SPA

– Uztailaren 26tik abuztuaren 25era, biak barne, itxita



Udako ordutegia

## FARMAZIAK



### Barixakua 19

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

### Zapatua 20

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

### Domeka 21

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

### Astelehena 22

EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

### Martitzena 23

EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)

### Eguaztena 24

EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)

### Eguena 25

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

### Barixakua 26

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

### Zapatua 27

EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)

### Domeka 28

EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)

### Astelehena 29

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

### Martitzena 30

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

### Eguaztena 31

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

### ABUZTUA

### Eguena 1

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

### Barixakua 2

EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

### Zapatua 3

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

### Domeka 4

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

### Astelehena 5

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

### Martitzena 6

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

### Eguaztena 7

EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)

### Eguena 8

EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)

### Barixakua 9

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

### Zapatua 10

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

### Domeka 11

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

### Astelehena 12

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

### Martitzena 13

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

### Eguaztena 14

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

### Eguena 15

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

### Barixakua 16

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

### Zapatua 17

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

### Domeka 18

EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)

### Astelehena 19

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

### Martitzena 20

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

### Eguaztena 21

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

### Eguena 22

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

### Barixakua 23

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

### Zapatua 24

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

### Domeka 25

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

### Astelehena 26

EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)

### Martitzena 27

EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)

### Eguaztena 28

EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)

### Eguena 29

EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)

### Barixakua 30

EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)

### Zapatua 31

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

### IRAILA

### Domeka 1

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

### Astelehena 2

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

### Martitzena 3

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

### Eguaztena 4

EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

### Eguena 5

EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)

### Barixakua 6

EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)

GAUEZ BETI

**Zulueta** (San Agustin, 5)


**Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (barkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, MIKEL, hillairen 26xan urte-txua beteko dozulako. Musu haundi bat tio Xabi eta amama Arantxaren partez.



Zorionak, MIXEL, hillairen 27xan 5 urte beteko dozuz-eta. Laztan haundi bat tio Iñigo eta amama Arantxaren partez.



Zorionak, DANIELA, hillairen 23an 6 urte beteko dozuz-eta. Asko maite zaittuen aititte, amama, Ibai eta tia Naiararen partez.



Zorionak, ELAIA!, hillairen 22an 9 urte beteko dozuzelako. Jarraitu beti zintzo, alai eta lagunak izaten.



Zorionak, JON Badiola Albizu, haraiñegun 8 urte bete zenuz-eta. Familixakuen eta lagunak partez.




Zorionak, IZARO, bixar 6 urte beteko dozuz-eta. Musu pillua famelixa guztiaren partez. Ondo pasa eguna, pitxurrita!



Zorionaak, MADDI, pitxintxoo!! Hillairen 25ian 4 urte!!! Segi irribarre horrekin!!! Maitagarria zara!!! Etxekuen partez.



Zorionak, AMETS, bixar 5 urte, heldu da eguna!!!! Musu potolo bat famelixaren eta, batez be, Manexen partez.



Zorionak, KOLDO, hillairen 27xan 4 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Ikerren partez.



Zorionak, amama MARGARI, bixar 101 urte beteko dozuz- eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MAIALEN Barrutia, gaur urtiak betetzen dozuz-eta. Familixaren eta, batez be, Aizea eta Aneren partez.




Zorionak, ANE!, etxeko printzesak hillairen 31n 5 urte beteko ditte-eta. Patxo erraldoia famelixaren partez!




Zorionak, PAULA, domekan urtiak beteko dozuz-eta. Gure etxeko poza zara!!!! Ondo pasau.




Zorionak, DANEL, abuztuaren 6xan urtetxua beteko dozu-eta. Familixaren partez!



Zorionak, MARKEL, hillairen 24an 5 urte beteko dozuzelako. Familixa guztiaren partez!



Zorionak, ANE, zure 10. urtebetetzian, bihotz-bihotzez!! Familixa guztiaren partez.



Zorionak, ENEKO, astelehenian 4 urte bete zenuz-eta! Patxo haundi bat etxeko danon partez!




Zorionak, HARITZ, gaur 9 urte betetzen dozuzelako. Musu haundi bat danon partez.



Zorionak, JARE, pasteltxo, hillairen 15ian 7 urte egin zenuz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, M<sup>o</sup> FRAN, astelehenian urtiak beteko dozuz-eta. Asko maite zaittugu. Etxekuen partez.



Zorionak, JON Justel Cabezon (ekaiñaren 28xan, 7 urte) eta LORE Arregi Cabezon (uztailaren 22xan, 14 urte). Familixakuen eta lagunak partez!



Zorionak, IZAR eta MAITE, zuen lehelengo urtebetetzian. Musu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, Amama MARIA ELENA! Etxekuen partetik.



Zorionak, MALEN, printzesa, atzo 7 urte bete zenuz-eta. Besarkada haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, UNAI (4 urte, hillairen 29xan) eta MALEN (10 urte, abuztuaren 4an) urtiak beteko dozuez-eta! Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez!



**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisu argitsua salgai T. Etxebarria kalean. 95 m<sup>2</sup>. 2 komunekin. Zure gustura diseinatu eta antolatzeko moduan. Tel. 686-745112.

### 1.2. Errentan

- Pisu bifamiliarra alokagai Txonta 45ean. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Guztiz jantzita. Deitu 20:00etatik aurrera. Tel. 943-248206.
- Etxebizitza alokatzen da Zumaian abuztuko. 3 gela eta 2 komun. Tel. 661-457958.
- Pisu zoragarria alokagai uztailean eta irailan Donostian, Kursaal eta Zurriolako hondartzara ondoan. 2-3 logela, sukalde handia, jangela-egongela eta 2 komun. 3 igogailu, eskilara egokitua eta garajea etxe azpian. Aste baterako edo hilabete osorako alokatzeko aukera. Tel. 689-232882.
- Pisu hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 602-463828.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

- Karabana finkoa salgai Mutrikun (Santa Elena kanpinean). Komuna, dutxa, banaze eta 2 oherekin (1'50 eta 0'90). 5.500 euro. Tel. 639-629346 eta 676-102578.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Garajea salgai San Juan kalean, Amayako garajeetan. Tel. 679-843282.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (Eusko Jaurilartzaren titularekin). 8 urteko esperientzia. Tel. 603-514085.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-012735.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 602-034495.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-906590.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 681-013032.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-668877.
- Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 602-800266. Denia.
- Neska eskaintzen da abuztuan nagusiak zaintzeko. Tel. 654-154301.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 653-421151.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta erakuntzan edo pintore jarduteko. Tel. 653-421159.
- Neska euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera umeak zaintzeko. Magisteritza titularekin. Tel. 688-625803.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Sukaldari ona. Tel. 612-521729.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 610-633065.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-046346.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 697-665452.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-894983.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Estetika ezagutzekin. Tel. 632-267668.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta igeltsero moduan. Tel. 602-025940.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta igeltsero moduan. Esperientzia. Tel. 631-894983.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta igeltsero moduan. Esperientzia. Tel. 622-277545 eta 617-740937.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-142233.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 639-291780.
- Kamarera eskaintzen da Eibarren lan egiteko. Tel. 677-034344.
- Emakume euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera umeak eskolara eramateko. Tel. 665-733162.
- Neska eskaintzen da manikura eta pedikura etxeko-erregio egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 655-770886. Rosa.

- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez umeak eskolara eramateko. Esperientzia. Tel. 605-770377.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko: garbitzaile, banatzaile, igeltsero... Tel. 642-695602.
- Emakume euskalduna eskaintzen da sukalde-laguntzaile lanetarako. Tel. 629-889465.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 612-235371.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-398855.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 633-496455.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 635-587617. Margarita.
- Emakumezkoa eskaintzen da zaintza, garbiketa eta sukaldaritza lanak egiteko. Tel. 632-576630.
- Neska eskaintzen da pertsona zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-158176. Casilda.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarera jarduteko. Esperientzia. Tel. 631-950442.
- Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-776998.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ziurtagiriarekin. Ordu-tegi malgua. Tel. 602-490595.

### 4.2. Langile bila

- Kamarera/o eta sukalde-laguntzaile behar dira Eibarko taberna batean. Tel. 659-539861.
- Euskera dakien emakumezkoa behar da goizetan umea eskolara eramateko, irailetik aurrera. Tel. 665-706006.
- Kamarera behar da Eibarko taberna batean. Arratsalde (16:30-20:30). Tel. 655-722967.
- Neska euskalduna behar da umeak goizean eskolara eramateko. Irailetik aurrera. Tel. 637-942140.
- Eibarren bizi den pertsona behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Asteleheneretik ostiralera, bost ordu egunero, zaitutako ordu-tegian. Irailan hasteko. Euskera jakitea baloratuko da. Bidali curriculum-a: egogain2@hotmail.com
- Neska edo emakume euskalduna behar da uztailean umea zaintzeko. Jardunaldi erdirako. Tel. 676-105492.
- Neska edo emakume euskalduna behar da irailetik aurrera umea zaintzeko eta etxeko lanetarako. Jardunaldi erdirako. Esperientzia baloratuko da. Tel. 676-105492.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus

i30 N eta N-Line Gama Berriak

# Dibertsioa garreneraino



i30 Fastback N

i30 N-line

MOVE Smart programa

**170** €-tik aurrera /hileko

170€-ko 35 kuota  
Sarrera: 7.335,8€  
Azkeneko kuota:  
9.392,42€  
U.T.B. %8,08

- 5 urteko bermea km-mugarik gabe
- 5 urteko laguntza errepidean
- 5 urteko mantenimendua
- 5 urteko mapa-eguneraketa
- Itzultzeko konpromisoa
- MyHyundai

Azeleragailua sakatzea eta burmuineraino igotzen zaizkizun kilimak sentitzea. Bihurgune bakoitzean bihotzak agintzen dizun moduan sartzea. Motorrak abiarazterakoan egiten duen soinuarekin emozionatzea. Gidatzerakoan sentitu baina adierazi ezin duzun horri "N Espiritua" deitzen zaio. Bertan dago **Hyundai i30 N Gama Berriaren** kiroltasunaren esentzia. Horrekin, dibertsioa, enegarren potentziara iritsiko da. Izan ere, i30 N Gama gutzia ahalik eta errendimendu eta kiroltasun handiena lortzeko diseinatu da, bolantearen aurrean pasioa eta dibertsioa berriz ere senti ditzazun. Baina "N Espiritua" askoz harago doa. Ezagutu ezazu **N-Line** akabera zure i30 gidatuz. Errepideaz goza ezazu berriro, eta eraman dibertsioa **Ngarreneraino Hyundaiaren i30 N eta N-Line Gama Berriarekin**.

**OARSO CAR**  
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPIZKOARAKO  
WWW.OARSOCAR.COM

**GRUPO EASO MOTOR**

**ELGOIBAR**  
Olaso Polig., 17  
943 74 14 80

**OIARTZUN**  
Lintzirin Poligonoa, 1  
943 49 48 30

**HYUNDAI**

**5** BERMEA MUGARIK GABE

i30 N-LINE eta N Performance Gama: CO<sub>2</sub> emisioak (gr/km): 142-188. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,3-12,2. WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo- eta emisio-balioak. CO<sub>2</sub> emisioak (gr/km): 126-178 NEDC korrelatu zikloaren arabera lortuak.

Hyundai MOVE Smart finantzazio-eredua i30 SP 1.0 TGD i 88,3KW (120CV) N-Line Hyundaiarentzat: Prezioa 20.475,00€, Sarrera 7.335,80€, Eskatutako zenbatekoa 13.139,20€. Formalizazio-komisioa (%3): 394,18€ eskura. 36 epetara. 170 €-ko 35 kuota eta azkeneko kuota 9.392,42€. TIN %6,50, U.T.B. %8,08. Zenbateko Zorduna Gutxira 15.736,80€. Epeka Prezioa gutxira 23.072,40€. Finantzazioa Cetelem S.A.U banketxeak azeru eta onartu behariko du. PSP gomendatua Finintzian eta Balaerretan. BEZ, garrasia, matrikulazio-zerga, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-eskaintza barne. Hyundai-ra Aldaketa Planoa aplikatu daterik erabiliko auto loten truke. 6 hilabeterekin, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren titulartasunarekin. Eskaintza 2019/07/31ra arte da baliozkoa. Irusten diren modelok: Hyundai i30 N-Line, i30 Fastback N Performance. Mantenimendua ibilgailuaren finantzazioari lotua. Hyundai Motor Espainia S.L.U.k bere bezeroei eskaintzen dien km-mugarik gabeko 5 urteko bermea Hyundai Kontzesionarioen Sare Ofizialean erositako autoetan soilik aplikatuko da, zerbitzu-pasaportearen arabera. Kontsulta itzazu Hyundai MOVE Programaren baldintzak Hyundai kontzesionario-sarean edo [www.hyundai.es/hyundaiMOVE](http://www.hyundai.es/hyundaiMOVE) webgunean.

HEGAZTIAK / AKUARIOFILIA / TXAKURRAK / KATUAK / KARRASKARIAK



**BALEA**  
**5€**

Gutxieneko gastua 30€  
Beharrezkoa da bale hau aurkeztea.



**tumascota**

"Maite dituzunak zaintzen ditugu"

Tel. 943 849 999  
Astelehena - Larunbata: 10h - 21h.

[www.tumascota.es](http://www.tumascota.es)

# Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.  
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure  
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure  
laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17



**bista eder**  
clinica dental - hortz klinika

**Deitu** | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar  
[www.bistaeder.es](http://www.bistaeder.es)